

EZKER ANITZA-IUren ESTATUTUAK

IX ASANBLADAN ONARTUAK

Barakaldon, 2017ko urtarrilaren 28an



ezker anitza

EDUKIA

Printzipioen definizioa	3
Ezker Anitza-IUren printzipioak eta erakundean duten isla	3
I. Izenburua: Ezker Anitza-IUren definizioa	11
II. Izenburua: Afiliatuak. Afiliatuen eskubideak eta betebeharrak.....	12
III. Izenburua: Erabakiak hartzeko prozesuei buruzkoa	15
IV. Izenburua: Alderdi politiko eta iritzi korronteen ingurukoa	17
V. Izenburua: Kargu publikoaren estatutua	19
VI. Izenburua: Lanketa kolektiboko arloen inguruan.....	22
VII. Izenburua: Egitura eta zuzendaritza organoen ingurukoa	24
VII. Izenburua: Erakunde taldeen ingurukoa.....	34
IX. Izenburua: Ezker Anitza-IUko administrazioa eta finantzak	36
X. Izenburua: Zehapen prozeduraren eta gatazken ebazpenaren ingurukoa	38
XI. Izenburua: Estatutuen aldaketaren eta interpretazioaren ingurukoa.....	41
Xedapen Iragankorrak.....	42
Azken Xedapenak	42

PRINTZIOEN DEFINIZIOA

EZKER ANITZA – IU gizarte eta politika mugimenduak euskal ezker eraldatzailearen baitako politikoki eta juridikoki subiranoa den erakunde bat osatu du, politika-ildo orokorrean eta programan bateratua eta ideologikoki anitza. Erakundeak EZKER ANITZAK bere batzarretan eta zuzendaritza organoetan onartu duen politika, bere programa, bere administrazio eta finantza funtzionamendua onartu eta praktikatu eta borondatez afiliatu diren alderdiak, taldeak eta pertsona guztiak daude sartuta. EZKER ANITZA – IU Euskadiko ezker eraldatzailearen barruko gizarte eta politika mugimenduak, bere subiranotasun osoa erabiliz, IUekin federatzea erabaki du Estatu mailan eta, honela, bere erreferentzia politikoa bilakatu da Euskadin. Bere xedea da egungo ekonomia, gizarte eta politika sistema kapitalista sistema sozialista demokratikoa bilakatzea, justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasunean oinarrituta, eta Estatu federal eta errepublikano bat ezartzea antolakuntza modu gisa.

EZKER ANITZA - IUk era irekian lan egin beharra dauka, ahalik eta biztanle gehien erakartzen saiatzeko, sektore progresistak, gizarte mugimenduak, langileak eta mugimendu alternatiboak bereziki, zehazpen edo mobilizazio ariketez haraindi, baita gauzatze politikoa ere iritzi, proposamen edo proiektuen bidez. Erakundeak helburu politikoak lortzen lagundu behar du, aipatueta, praktika sozialera eta bere kide direnen gehiengora malguki egokituz.

EZKER ANITZA-IUREN PRINTZIOAK ETA ERAKUNDEAN DUTEN ISLA

Bere barne lanean eta EZKER ANITZA – IU osatzen duten kide ezberdinen arteko harremanetan, garrantzi handiko ondoko printzipio gidariak errespetatuko dira:

A. Federaltasun printzipioa

Federaltasun printzipioak subiranotasunaren onarpena eskatzen du gure eremuari dagokionean, batasun federalerantz demokratikoki aurrera egin ahal izateko lehen baldintza gisa.

Funtzionamendu federaleko edozein printzipioak akordio politiko sakon baten beharra dakar, erakunde mailan koordinaturiko funtzionamendu batean; bai eta aipatua gauzatzeko borondate politikoa ere.

Federaltasun printzipio honek ondokoa dakar:

EZKER ANITZA – IU politikoki eta juridikoki subiranoa den erakunde bat osatu duen gizarte eta politika mugimendu bat da eta bere lurralde eremua EAE da. EZKER ANITZA – IUren subiranotasuna bere afiliatuetan dago eta aipatu subiranotasuna estatutu hauetan ezarritako mekanismoen bidez gauzatu da.

EZKER ANITZA - IU, bere subiranotasun, autonomia eta berezko nortasun juridikoan oinarrituta, IUekin federatu eta Izquierda Unidaren proiektu federal eta errepublikanoa partekatzen du, IUren erreferentzia politikoa bilakaturik Euskadin.

Erantzunkidetasunean lan egiten du akordio programatiko eta politikoan oinarrituta, zeinak Estatuko beste nazionalitate eta eskualdetako ezkerreko indarrekin izan beharreko harremanak zehazten dituen, eta erakunde federalaren garapenaren erantzunkide da, eman zein jasotzeko.

Harreman federal honen zehazpena bi erakundeek sinatu duten harreman protokoloaren bidez adierazten da. Bi erakundetako koordinatzaileek ondoren sinatutako protokoloaren bidez harreman solidarioa bermatuko da, edozein eraginetarako, erakunde federalarekin.

Egon daitezkeen ezberdintasunak konpontzeko metodoa eztabaida eta akordio politikoa izango da. Arau demokratiko komunen arabera eskudunak diren instantzietan gauzatuko den eztabaida eta akordio politikoa, EZKER ANITZA – IUren subiranotasuna eta berezko pertsonalitate juridikoa errespetatuz.

Nafarroako Ezker Batuak bere lurralde-eremuan duen subiranotasuna errespetatuz, EZKER ANITZA – IUk eta Nafarroako Ezker Batuak harreman berezia izan beharko luketela uste dugu, proiektu federalaren koherentziaren, izaeraren eta programa-edukiaren baitan.

B. Funtzionamendu demokratiko, parte-hartzailearen eta adostasunaren printzipioa

Demokraziaren gauzatzea eta bere garapena izango dira EZKER ANITZA – IUren funtzionamenduaren ardatza; politika egiteko era berri bat izango da, non bere kide guztien partaidetza erakundearen ezaugarri nagusia izango den.

EZKER ANITZA – IUko funtzionamendu demokratiko eta parte-hartzailearen oinarria Asanbladek dagozkien eremuetan duten nagusitzan oinarritzen da. Mekanismo horri esker, "behetik gorako" erabakiak hartzeko prozesua bermatzen da.

Printzipio honen xedea da erakundeko afiliatu guztien parte hartzeko grina sendotzea, jarduera eta orientazio politikoen egiazko protagonistak baitira. Horretarako, aparatuen eta eliteen edo abangoardia intelektualen lengoaietz eta gutxiengo batek akaparaturako mezuaz haraindi joan beharra dago. Zentzu horretan, partaidetza herrikoia erraztuko duten eta banakoari, bere egoera, izaera edo interesa dena dela, bere ekarpena egiteko eta erakundean parte hartzeko era aurkitzen lagunduko dioten bideak eta estrategiak abian jartzeko konpromisoa hartzen du erakundeak.

Erabakiak hartzerakoan, kontsentsua bilatuko da. Desadostasunen kasuan, gehiengoak bozketa bidez adierazten dituen erabakiak gauzatuko dira. Pertsona edo talde guztiak, beren iritzia dena dela, hartutako akordioen mende geldituko dira.

EZKER ANITZA -IUko hautagaiak eta ordezkariak isilpeko bozketa bidez aukeratuko dira. Kontsentsurik behar ez duen beste edozein erabakirako, bozketa besoa altxatuz egingo da, bozkatzeko eskubidea duten bertaratuen % 10ak isilpeko bozketa eskatu ezean.

Honela, gizarte mailan esku hartu nahi duten horien parte-hartzea sustatzen da, aparatuen eta botere estatusen berezko lengoaiak gaindituko dituzten eremu ulergarriak bilatuz. Eta hori, bakoitzak bere interesaren eta ezagutzaren arabera parte hartzen duelako bere ezagutza, ideia, esperientziaren arabera, egokienak deritzon ekimenak eta alternatibak proposatuz eta, aldi berean, egoera berdinetik beren irizpidearen arabera ekarpena egiten duten horiengandik ikasiz.

Erakundearen kudeaketan gardentasun eta ebaluazio mekanismoak ezartzeko xedearekin, planifikazio, gauzatze eta ebaluazio epeak zehaztuko dira, helburu orokor eta berezietan oinarrituta.

C.Lanketa kolektibo eta ekintza batasunaren printzipioa

Lanketa kolektiboa funtsezko printzipioa da EZKER ANITZA – IUrentzat. Zehatza den hori aztertu ondoren alternatibak proposatu eta beren alde mobilizatzen den partaidetza aktiboko prozesu bat da.

Lanketa kolektiboa taldearen partaidetza-dinamiken mende dagoen politika egiteko beste era bat da eta, ondorioz, politika egiten dutenen eta aipatua jasotzen dutenen arteko disoziazioa gainditzen du.

Lanketa kolektiboaren eremuan ikuspuntu eta interes ezberdinetatik ezkerreko alternatiba egingarri bat bilatzen dutenen artean ematen den topaketari esker aipatu alternatiba ez da presioaren edo nagusitasunaren emaitza, hobetzeko eta egungo errealitateak gainditzeko esfortzuaren emaitza baizik. Prozesu horretan, halaber, ezagutzaren konpartimentazioa hautsi eta aipatua ikuspegi globalago eta solidarioago batean integratzen da.

Egun, gizarte mobilizazioak errealitate hobetza bilatzen duten interesatutako pertsona edo taldeen eskaeratarantz eta kezketarantz gerturatu behar du ezinbestean. Gerturatze hori ez da forma edo koiuntura ekitaldi hutsa, eta are gutxiago elektorala. Gizarte ehunean presente egotea eskatzen du, sinesgarritasuna irabaziko duten jarrera eta proposamenekin. Era antolatuan presente egotea ez da, ezta ere, organo edo gizarte erakunde ezberdinetako kide izateko nahi mekaniko bat. Azken finean, topaketa eta eztabaida guneak eskaintzea da xedea, gizartearen baitan eta bere gizarte mugimenduen baitan, gehiengoaren interesak bultzatutako alternatibak ager daitezen kolektiboki. Horrexegatik, ikusmira irekia izateko, ulertzeko eta malgua izateko gaitasuna eduki behar da, aipatua proposamenak eta alternatibak formulatzeko eta partekatze gaitasunari lotuz gero, aurrerabide planteamenduen inguruko hegemoniak sortu eta, aldi berean, gizarte zibila artikulatu baitaiteke.

Lanketa kolektiboari esker, halaber, ikuspuntu ezberdinak hazta daitezke, bakoitzak gizarte jardura zehatz batean duen paperaren arabera (langile/erabiltzaile, ikasle/guraso/irakasle, ekoizle/kontsumitzaile, lan-egoera ezberdinak langileriaren baitan, etab.), ahal den guztietan ikuspegi ezberdinak batuz, beraien arteko ustezko kontraesanak gaindituz beste batzuetan edo, halaber, guztien ongia hoberen babesten duen horri lehentasuna emanaz.

D. Aniztasun printzipioa

EZKER ANITZA – IU zentzu hertsian alderdiak diren horiek, iritzi-korranteak eta banako indibidualak barne hartzen dituen gizarte eta politika mugimendu gisa berresteak, harreman zuzena eta etengabea mantenduko duena indarrean dauden gizarte mugimenduekin, ordezkartzaren eta hiritarron partaidetzaren arteko harremana sendotzea du helburu. Antolaketa hori ohiko alderdien antolaketa baino aproposagoa dela deritzogu, gizarte eta kultura emantzipazioaren balioekin langile eta hiritar ugarik duten konpromisoa isla dezaketen jarduera politiko-sozial eta politiko-kulturalen ikuspegi ireki, malgu eta parte-hartzaile bat bermatzeko.

Gizarte eta politika mugimendua izateak, halaber, EZKER ANITZA - IU gizartean hedatu eta bere proiektua irekiagoa eta parte-hartzaileagoa egiten laguntzeaz gain, politika proiektu honen egungo ezaugarrietako bat den aniztasuna sustatzen du ere. Ideia hori printzipio partekatu huts bat baino gehiago izan dadin, ordea, barneko aniztasuna eta afiliatuen partaidetza bermatu beharra dago.

Aniztasuna EZKER ANITZA – IUko funtsezko ezaugarrietako bat izan da bere hastapenetatik. Ezker eraldatzailearen berritze kultural, politiko eta antolatzailearen aldeko apustuarekin bat doan balioa dela uste baitugu. Aniztasunaren erroak, hasteko, EZKER ANITZA osatzen dugunon ideologia eta kultura tradizioetan oinarrituta daude: sozialista, komunista, errepublikazalea, libertarioa, ekologista, feminista eta bakezalea.

Bestalde, bide bakarra dago aniztasuna ekintza politiko eraginkorra ahalbidetzen duen kohesioarekin osatu ahal izateko; bozketa bidez, aho batez edo gehiengoz onartutako EZKER ANITZA - IUko programa eta estatutu dokumentuetan bildutako arauak eta printzipioak asanbladen artean errespetatzea. Eta hori, hain zuzen ere, jokabide arau eta printzipio horiek ezberdintasunen arteko sintesia egiteko eta erakunde osoaren eraginkortasuna errazteko pentsatuak izan direlako.

Horrenbestez, EZKER ANITZA – IU, bere aniztasunean, erakunde juridiko, autonomo eta politikoki subiranoa dela berretsi daiteke beste behin. Eta aurrekoa, funtsean, bi planotan islatzen da:

1. Afiliazioaren zein oinarritutako afiliatuen eskubide guztien gauzatzeak duten banakako izaeraren bidez, pertsona bat, boto bat irizpidean oinarritua.
2. EZKER ANITZA – IUk erakunde subirano gisa gauzatzen dituen eskumenen planoan.

Printzipio horiek funtzionamendu demokratikoaren eremura eta erabakiak hartzeko espaziora eramateko prozesuak bi irizpide argi izango ditu: ahalik eta kontsentsurik handiena bilatzea akordioak lortzeko eta, ezinezkoa balitz, akordioak, erabakiak edo irizpenak bozketa bidez finkatzea. Nolanahi ere, eta afiliatuen adierazpen askatasunerako eskubideari kalte egin gabe, onartutako akordio guztiak lotesleak dira. Aurrekoek EZKER ANITZA – IUko posizio eta ekintza-lerro bateratua definituko dute. Aniztasuna garatzeko, bere afiliatuek iritzi-korranteak osatzeko duten eskubidea onartzen du EZKER ANITZA – IUk, Estatutu hauen bidez normalizatuta.

Aniztasunak politika egiteko eran izan behar du bere isla eta EZKER ANITZA – IUk, ondorioz, jarrera pertsonalak eta kolektiboak garatzearen alde egiten du eta esku-hartze metodo autoritario eta sektarioak erabiltzeari uko egiten dio, gizarte mugimendutan zein erakundeetan bertan.

Aniztasuna eta ekintza eta erabaki askatasuna erakundearen baitan onartzen dituen printzipio honen defentsan, aipatua murriztu edo baldintzatu nahi duen jarrera edo jokabide oro estatutu huen kontrakoa dela ulertuko da. Zentzu honetan, “manamenduzko agindua” delakoa berariaz galarazita dago EZKER ANITZA - IUko barne-organoetarako zerrendak osatzerakoan. Hau da, parte hartzeko eta aipatu zerrendetan egoteko erabaki indibidualak hartzeko askatasuna gauzatzeko baldintzak edo mugak -ahozkoak zein idatzizkoak-ezartzea.

Baldintza edo muga horiek ezagutuko balira, aipatuak paira dituen/dituzten zerrenda/k indargabetuko litzateke/lirateke. Eta etorkizunean ezinezkoa izango da aipatuak erabiltzea, inolaz ere, zerrenda edo hautagaitza bateko kideren bat bere gogoaren kontra edo bere berariazko onespina izan gabe baldintzatu edo ordezkatzeko.

E. Kargu publiko edo erantzukizun politikoren bat duten Ezker Anitza-IUko pertsonen karguan egotea mugatzen dien printzipioa

EZKER ANITZA – IUko hautetsiak indarreko legediak dioten arabera bi legealdi natural egongo dira, era jarraituan eta gehienez, kargu bereberetan; edo 8 urte hauteskundeak aurreratuko balira. Era berean, EZKER ANITZA – IUko barne karguak dituztenek 8 urte emango dituzte, gehienez, kargu berdinean. Bi kasu horietan, pertsona horiek hirugarren agintaldi batera aurkezteko ezohiko aukera izango dute, organo eskuduneko kideen 2/3en babesa lortuz gero, gutxienez.

F. Sexuen arteko oreka, berdintasun eta feminismo printzipioa

Ezkerra eraldatzeko proposamenarekin koherentzia mantenduz, EZKER ANITZA - IUk emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure gizartean bermatzeko proiektu baten garapena bere egiten du.

Parekotasuna ezarriko da, generoen arteko orekaren printzipioa bermatzeko. Horren arabera, generoek ez dute % 50etik beherako ordezkariarik izango (zerrenda bakoitiak edo alternatiboak salbu); eta beti ere kremlera-zerrendak eginaz, parekotasuna bermatzea ahalbidetuko zuten sexuren bateko hautagai nahikoak ez daudenean kenduta.

Printzipio honek etengabeko esfortzu bat suposatu behar du emakumeen partaidetza errazteko EZKER ANITZA – IUren baitan, erakundearen jardura guztietan, prozesu guztietan duten inplikazioaren ondorio naturala izan dadin beren presentzia. Dagokien organoek, halaber, beharrezko baliabideak jarri beharko dituzte emakumeen partaidetza errazteko jardura ezberdinetan eta EZKER ANITZA – IUko zuzendaritza organoetan.

EZKER ANITZA – IUk, halaber, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna hizkuntz eremuan ere errespetatzeko konpromisoa hartzen du. Honela, ebazpen publiko eta jakinarazpen guztiak lengoiaia zainduz eta emakumeen eta gizonen arteko oreka mantenduz edo esamolde alternatiboak erabiliz idatziko dira, genero maskulinoko izenak saihestuz beti.

G. Hizkuntza normalizazioaren printzipioa

EZKER ANITZA – IU jakitun da euskarak, bere normalizazio prozesuan, izaera politikoko eta juridikoko eraso onartezinak pairatu dituela bere historian zehar. Horrexegatik, euskara gure herriko ardatz nagusienetako bat eta etorkizuneko Europako herrietako batasuna berretsiko duen osagai bat dela uste duenez, EZKER ANITZA - IUk euskara instantzia guztietan defendatzeko eta sustatzeko konpromisoa hartzen du.

EZKER ANITZA - IUk euskararen erabilera eta ezagutza eta elebitasuna sendotzeko neurriak babesten ditu, euskal hiritarron arteko harremana eta komunikazioa oinarrituko duten osagaietako bat den heinean. EZKER ANITZA – IUk elebitasuna babesteko eta sustatzeko konpromisoa hartzen du eta, bereziki, euskararen erabilera sustatzea bilatzen duten neurriak, aipatua gure gizarteak itxi gabe daukan egiteko bat baita.

EZKER ANITZA – IUk euskararen erabilera erakundearen baitan normalizatzeko neurriak sustatuko ditu, komunikazio-hizkuntza bilaka dadin ahozko zein idatzizko mezuetan, gure ekintza guztietan, barnekoak zein kanpokoak, presente egon dadin, asanblada bakoitzaren gaitasuna aintzat hartuz eta, beti ere, afiliatu guztien barne-eskaria errespetatuz.

Bere jakinarazpen publiko eta komunikatu guztiak gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko ditu EZKER ANITZA – IUk.

H. Erantzukizun ekologikoaren printzipioa

Ingurumenaren babesa eta ingurumenari dagokionean jasangarria den garapen baten bilaketa EZKER ANITZA – IUren funtsezko ezaugarriak dira. Horien harira, erantzukizun ekologikoaren printzipioa gure egiten dugu. Erakundearen barruan erabiltzeko balio gisa zein norbanakoaren jarrera gisa.

Zentzu horretan, jasangarritasuna bermatzeko mota guztietako ekimenak hartzeko (birziklatutako papera erabiltzea, inprimagailuen tonerrak berriz kargatzea, indarra aurrezte, hondakinak bereiztea eta hautatzea, tresna berrerabilgarriak behin erabiltzeko horien orde, papera berrerabiltzea birziklatze puntuak jarriz gure egoitza guztietan, etab.), ingurumen kultura sustatzeko, garraio publikoa erabiltzeko, alternatibak aztertzeko eta antzeko konpromisoak hartzen ditugu. Finean, gure programa printzipioekin eta jarrera pertsonalekin bat doazen erakunde ekintza zein ekintza pertsonal guztiak. EZKER ANITZA - IUren erosketa politikak eta desplazamendu-ordainen ordainketak irizpide horiek aplikatuko dituzte berariaz.

I. Irisgarritasun printzipioa

EZKER ANITZA – IUk irisgarritasuna bermatuko du ikuspegi integral batetik, bere egoitza, ekitaldi eta webgunetan bederen.

Printzipio honen oinarria da ezgaitasunen bat duen pertsona oro gizarte-eremu guztietan parte hartzeko eskubide guztiak duen pertsonatzat hartzen dugula. Eta ikuspegi horretatik abiatuta, inguruak izan behar du herritarron beharren aniztasunera egokitu behar duenak eta ez norbanakoak "batezbesteko pertsona" batentzako programatutako diseinura egokitu behar izatea. Aniztasunaren integrazioan duen erantzukizuna bere egiten du EZKER ANITZA – IUk.

J. Ezker Anitza-IU, proiektu gaztea eta gazteriarena

EZKER ANITZA - IU proiektu gaztea da ere, gura garaiko gazteek dituzten arazoekiko sentibera. Ondorioz, gazteen presentzia gure egituran eta bere zuzendaritza organoetako maila guztietan funtsezkoa da proiektu politikoaren bideragarritasunerako, gazteen partaidetza sustatuko duten politikak sortuz EZKER ANITZA – IUren etorkizuneko garapenerako.

Gure proiektuaren ardatz nagusia da gizarte errealitatea eraldatzea gizarte berri, parte-hartzaileago eta eraldatzaile baterantz, non gazteek beren etorkizuneko protagonista aktiboak izango diren. Horretarako, beren kezkek bultzatu beharra dago, beren arazoak eraldatuko dituzten ekimenak eta proposamenak integratzen ahaleginduz.

Ahalik eta ahalegin handiena egin behar dugu, gazteek erakundearen barruan izan dezaketen partaidetza politiko errazteaz gain beren presentzia erabakigarria izan dadin organo eta hautagaitza guztietan.

Horretarako, Gazteria Arloari atxikitako hautagaiek % 30a suposatu beharko dute, gutxienez, Kongresu eta Senaturako, Eusko Legebiltzarrerako, Foru Aldundietarako eta 5.000 biztanletik gora dituzten udaletarako hautagaitzetan, zein Euskadiko eta Lurraldeko Kontseilu Politikoetarako barne hauteskundetarako hautagaitzetan.

K. Gizartea eraldatzeko helburu estrategikoekin bat doan erakundea

Gizartea eraldatzeak epe luzerako estrategia bat eskatzen du, kapitalismoarekiko alternatiboa izango den proiektu bat bere konplexutasun guztiarekin gauzatzea ahalbidetuko duena, alternatiboa edukiei zein politika egiteko erei dagokienean ere.

EZKER ANITZA -IUren proiektua hiru funtsezko osagarritan oinarritzen da:

1. Egungo sistema kapitalistarekiko alternatiboa den programa bat, ezkerren ohiko balioak eta gizarte mugimenduetatik eratorritako balio berriak uztartuko dituena.

2. Kultura-berrarmatzeko lana, gizarteko maila ezberdinetan sartzeko gai izango dena. EZKER ANITZA – IUrentzat, nagusitasun politikoa baino, osagai nagusia da subjektu sozial eraldatzaile baten prestakuntza, egungo kulturari aurre egin eta egiazko ezkerreko kultura bat sustatuko duena.
3. Politika egiteko era berria. Hau da, gure jarduera analisisian eta arrazoitutako proposamenen oinarritu behar dugu, ezezkoaren indarra bilakatu gabe. Eta gure aliantzak, boterearen banaketan begia jarrita duten horiekin egin ordez, gizartea eraldatzeko eduki eta helburuen arabera ezartzea.

Gizartea eraldatzeko eta sistema kapitalistatik ateratzeko alternatiba bat eraikitzeke xede horretan, EZKER ANITZA - IUk ezker honen aniztasuna onartu eta aldarrikatzen du, bere estrategia politikoa konbergentzian eta ekintza batasunean oinarrituz alternatiba horren alde lan egingo duten eragile sozial eta politikoko guztiekin.

Esperientzia alternatiboak sortuz, gure proposamenen isla gisa. Gizartea eraldatzeko prozesu horretan gizartea bera inplikatu duen esperientziak.

L. Antolakuntza egitura eta barne funtzionamendua

- a. Erakunde osoaren zerbitzura dagoen egitura demokratikoa, lidergoa eta erabakiak hartzeko prozesuak asko barreiatuko dituen, demokratikoki, erakunde osoan zehar. Zuzendaritza organoen gaineko kontrol mekanismoak ezarri behar ditugu maila guztietan, txandatzeko goi-mailako karguetan eta gardentasuna zuzendaritza organoen funtzionamenduan, erantzukizun zehatzak emanaz zuzendaritza talde bateko kide bakoitzari. Erantzukizunen kontzentrazioa pertsona bakar batean saihestuz, bateraezintasun-sistema bat garatuz goi-mailako karguentzako eta kontrapisuen existentzia ahalbidetuz erakundearen baitan.
- b. Lan boluntario antolatua ahalbidetzea, gure erakundearen mesederako. Azken urteotan, politikaren profesionalizazioa eman da ez bairik gabe. Politikari eta sindikalista profesionalen sorkuntzarekin batera, bere denbora/lanaren zati bat erakundeari era altruista eta boluntarioan eskaintzen dion militantearen irudia itxuragabetzen joan da. Horrek, beste ondorio ezkorren artean, alderdi-apatuen sorrera ekarri du, handiak eta mantentzen garestiak direnak, iraganean militanteek boluntarioki gauzatzen zituzten eginkizunak alderdiko langileak edo kanpoko zerbitzu-enpresak egiten baitituzte orain eta, honela, militanteen gaitzutea sustatzeaz gain, finantzazioaren arazoa agertzen da ere.
- c. Partaidetza demokratikoa. Eztabaidaren baitan ideiak proposatzeaz gain, onartutakoaren gauzatzean esfortzuak egitea eskatzen duen partaidetza demokratikoaren ikuspegia.
- d. Ekonomia autonomia osoa. Ekonomiak nonahiko kezka izan behar du erakundearen arlo guztietan, diru-sarrerak eta gastuen alderdi bikoitz horretan: diru-sarrerak lortzeko ekimenak, baliabide ekonomikoaren administrazio egokia, gastuaren austeritatea printzipio orokor gisa eta lan boluntarioaren bidez egin daitezkeen zerbitzuak ez kontratatzea.
- e. Barne eta kanpoko komunikazio-bideak ezartzea. Barne mailakoak, oinarritzko erakundetako eta zuzendaritza organoetako lan- eta eztabaida-

esperientziak era sistematikoan ezagutu ahal izateko. Kanpokoak, gure proposamenak gizarteari transmititzeko.

I. IZENBURUA: EZKER ANITZA-IUREN DEFINIZIOA

1. Artikulua: Definizioa

EZKER ANITZA – IU gizarte eta politika mugimenduak politikoki eta juridikoki subiranoa den erakunde bat osatu du. Bere xedea da egungo ekonomia, gizarte eta politika sistema kapitalista sistema sozialista demokratikoa bilakatzea justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasunean oinarrituta, eta Estatu federal eta errepublikano bat ezartzea antolakuntza modu gisa, politika-ildo orokorrean eta programan bateratua eta ideologikoki anitza, non EZKER ANITZAK bere batzarretan eta zuzendaritza organoetan onartu duen politika, bere programa, bere administrazio eta finantza funtzionamendua onartu eta praktikatu eta borondatez afiliatu diren alderdiak, taldeak eta pertsona guztiak dauden sartuta.

EZKER ANITZA – IU Euskadiko ezker eraldatzailearen barruko mugimendu politiko eta sozialak, bere subiranotasun osoa erabiliz, IUrekin federatzea erabaki du Estatu mailan eta, honela, bere erreferentzia politikoa bilakatu da Euskadin.

2. Artikulua: Izena

Bere izena EZKER ANITZA – IZQUIERDA UNIDA (EzAn-IU) izango da.

3. Artikulua: Egoitza soziala

EZKER ANITZA – IUren egoitza soziala Bilboko Erronda Kalea 24, 1B helbidean egongo da, organo eskudunek egoitza beste leku batera eramateko duten gaitasunari kalte egin gabe.

4. Artikulua: Ikurrak

Ondokoa izango da ikurra:



ezker anitza

Horrez gain, ikurrina eta errepublikaren bandera bereko ikurtzat hartzen ditu eta beren ageriko presentzia bilatuko da egoitza eta ekitaldi nagusitan.

5. Artikulua: Lurralde eta denbora eremuak

EZKER ANITZA – IUren ekintza eremua Euskal Autonomia Erkidego osoa da eta bere iraupena mugagabea izango da.

6. Artikulua: Hizkuntzak

Gaztelera eta euskara bere egin eta erabiliko ditu EZKER ANITZA – IUk.

7. Artikulua: Ezker Anitza-IUren eskumenak

EZKER ANITZA – IUren eskumenak mugimendu soziopolitikorako Estatutu hauetan, Euskadiko Asanbladak onartutako Dokumentu Politikoan eta ostean bere organo ezberdinetan onartutako dokumentuetan zehaztutako horiek dira.

EZKER ANITZA – IUren partaidetza proiektu federalean EZKER ANITZA -Iuko EUSKADIKO KOORDINAKUNDEAK eginiko eta onartutako eta, hala baderitzo, IU Federalak egokitzat hartzen duen organoak berretsi beharko duen hitzarmen baten bidez finkatuko da, xehetasun osoz.

II. IZENBURUA: AFILIATUAK. AFILIATUEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Kapitulua: Afiliatuak

8. Artikulua: Ezker Anitza-IUn sartzea

- a. EZKER ANITZA – IUk bere helburu eta printzipioak, estatutuak eta ebazpenak berariaz onartzen dituzten pertsona, talde, elkarte eta alderdi guztiak onartuko ditu. Afiliatuen Arautegian ezarritako arauen arabera, alta Oinarrizko Asanbladan eman bezain pronto integrazioa indarrean sartzen da. Afiliatu izateko gutxieneko adina 18 urtekoa da.
- b. Autonomia Erkidego mailako erakunde edo alderdi batek, EZKER ANITZA – IUn sartu ahal izateko, sartzeko eskari berezia egin beharko du, txosten bat egin eta Oinarrizko Asanbladetan eztabaidatuko da eta, ondoren, Euskadiko Koordinakundeak eragin guztietarako eta behin betirako onartuko du. Nolanahi ere, banako afiliazioaren printzipioa kasu honetan aplikatzekoa da ere.

9. Artikulua: Afiliazio alta

EZKER ANITZA -Iura afiliatzea indarreko araudiari jarraiki beren afiliazioa eskatu duten pertsonen ekintza indibidual eta boluntarioa da eta pertsona horrek Estatutu hauetan, EZKER ANITZA -Iuko Printzipio Deklarazioan eta bere Hauteskunde Programan ezarritako helburuak onartu eta praktikatu beharko ditu, bai eta Estatutu hauek errespetatu ere.

Afiliatutako pertsona guztiek txartel bat izango dute, beren afiliatu izaera islatuko duenak.

Aldekoen irudia informazio, partaidetza eta antzeko helburuetarako ezarriko da. Zerrenda orokor bat eta/edo tokiko zerrenda bat egon daiteke ere, indarreko legedia bete beharko duena beti.

10. Artikulua: Afiliazio baja

EZKER ANITZA – IUn baja eragingo da:

- a) Afiliatuaren erabaki askearen ondorioz.
- b) Heriotzagatik.
- c) EZKER ANITZA – IUko organo eskudunen behin betiko zehapen baten ondorioz.
- d) ADUren arauen arabera kuota behin eta berriz eta justifikatutako arrazoirik gabe ez ordaintzeagatik.
- e) Ustelkeriari edo diru publikoen bidegabeko erabiltzeari loturiko delitua egiteagatik justiziaren zigorra jaso izanagatik.
- f) Xenofobia, LGTBI+fobia, arrazakeria, emakumeen aurkako indarkeria, emakumeen integritate fisiko, sexual, moral edo psikologikoaren kontrako delituren bat edo gehiago egiteagatik, afiliatuak justiziaren zigorra jaso ostean.

2. Kapituluak: afiliatuen eskubideak eta betebeharrak

11. Artikulua: Eskubideak

- a) EZKER ANITZA - IUko jarduera eta erabaki guztietan parte hartzea.
- b) EZKER ANITZA – IUko edozein organorako bozkatzeta eta hautatua izatea eta postu horretan segitzera hautatu zuen organoak berak aurkakoa erabaki, zehapenen bat jaso edo kargualdia amaitu ezean.
- c) EZKER ANITZAK hartzen dituen erabakietan parte hartzea, dagokion eremuan.
- d) Iritzi ezberdina izatea eta aipatu iritzia erakundearen maila guztietan adieraztea, barne mailan eta komunikabideak ez erabiltzen saiatuz, barneko aniztasuna eta afiliatu guztien adierazpen askatasuna bermatu ahal izateko.
- e) EZKER ANITZA – IUko lanketa kolektiboko arloetan parte hartzea. Begirune eta konfidentziasunaz gozatu ahal izatea, bai eta bere iritzi politiko, sinesmen erlijioso edo moral eta bere bizitza pribatuarekiko begirunea jasotzeko eskubidea ere.
- f) EZKER ANITZA -IUko organo eskudunen esku-hartzea eskatzea zuzendaritza organoetako ebazpen eta neurrien aurrean edo EZKER ANITZAKo kideen jarreraren aurka eta, bereziki, afiliaturen baten aurka hartu litezkeen diziplina-neurrien aurka.
- g) Bere arduradunak eta kargu publikoak politikoki kontrolatzea, zehaztutako estatutu-bideen bidez, era sinesgarrian kontratatutako eta egiazko informazio batean oinarritua.
- h) Informazio eta prestakuntza egokiak jasotzea, baliabide egokien bidez, bere eginkizun politikoak bete eta gauzatu ahal izateko. Zuzendaritza organo eskudunek dokumentu horiek onartuta dituztenean, dokumentu ofizialak ahalik eta azkarren bidaliko zaizkie afiliatuei. Eztabaidarako, zuzenketak egiteko eta erreferendum edo kontsulta lotesle bidez erabakiak hartzeko

- oinarri diren dokumentuen kasuan, aipatu dokumentuak eztabaida egin baino hamabost egun lehenago bidaliko dira, eta ahal bada.
- i) EZKER ANITZA – IUren kanpoko eta barne babesak jasotzea bidegabeko deskalifikazio eta erasoan aurrean, organo eskudunek zehazten duten eran. Halaber, EZKER ANITZA - IUren defentsa juridikoa jasotzea, bere ekintza politikoaren ondorioz, eta beti ere estatutu-markoaren baitan, epaitegien aurrean salatua izango balitz.
 - j) EZKER ANITZA – IUren zentsu osoa ezagutzea, asanblada aurretiko prozesuetan batez ere, erakundearen berezko xedeetarako eta datu Pertsonalak Babesteko Legearekin bat.
 - k) Egitura eta erakunde ezberdinek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte afiliatuak eta aldekoen zein laguntzaileen datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta EZKER ANITZA - IUren helburuetarako soilik erabiltzen direla bermatzeko ere.
 - l) Politika eta antolakuntza proposamenak aurkeztea goi-mailako organoetan eta aurkeztuak izan diren organoen aurrean defendatzea. Halaber, horiei buruzko erantzuna jaso beharko da aurkeztua izan eta bi hilabeteko epearen barruan.
 - m) Erakundearen maila ezberdinetako diru-sarreraren eta gastuen inguruko informazioa jasotzea.
 - n) EZKER ANITZA- IUren lanpostuen zerrenda ezagutzea. Aipatu zerrendak ondokoak adierazi beharko ditu: liberatzeak, ordainsariak, eginkizunak eta ordutegiak.
 - o) Indarreko legeak eta Estatutu hauek aitortzen dizkioten beste guztiak.

12. Artikulua: Betebeharrak

- a) Bere jarduera politikoa EZKER ANITZA - IUren printzipioak, programa eta estatutuak betetzeko boluntarioki hartutako konpromisora egokitzea, bai eta organo eskudunek emandako ebazpen eta akordio horietara ere.
- b) Afiliatu guztiak Oinarrizko Asanbladan parte hartzea behartuta daude, beren ideiak eta iritzia emanaz, aipatuan adostutako politika garatuz, bai eta EZKER ANITZA – IUko organo eta maila guztietan demokratikoki onartu dituen erabaki guztiak errespetatuz; halaber, bere partaidetza duen organoaren eta goiko organoen irizpenak eta erabakiak defendatzera behartuta daude.
- c) EZKER ANITZA – IUko zuzendaritza organoek hartutako akordioak lotesleak dira eta organo horretako kide guztiak aipatuak onartzera eta betetzera behartuta daude; kide guztiek adierazpen askatasuna bermatuta dute halere, beren iritzia eskusiboa eta berezia den heinean.
- d) Afiliatuek afiliazio-kuota ordaindu beharko dute. Aipatu kuota banku-helbideratzearen bidez ordainduko da eta aipatua ordaintzeko epe ezberdinak daude: hiruhilekoa, sei hilekoa edo urtekoa. Gutxienezko hileko kuota 5 eurokoa izango da; diru-sarrera eskasak dituzten pertsonen hileko kuota 3 euroko kuota berezia ordaintzeko aukera izango dute. Euskadiko Koordinakundeak kuotak urtero eguneratzeko aukera izango du eta kuota berezia ordainduko dutenek bete beharko dituzten baldintzak ezarriko ditu.

13. Artikulua: Aldekoak

IUren Aldekoak-ek, bere eremu ezberdinetan, lurraldeko edozein organoren bidez ideia eta proposamenak egiteko edo bilera irekietan parte hartzeko edo, besterik gabe, IUk eginiko informazioa jasotzeko nahia agertu duten pertsona fisiko, elkarte edo gizarte elkarte guztien zerrenda egingo du.

Aipatu pertsona edo erakundeak ADUn sartzearekin bat (aipatua ez egiteko berariazko borondatea agertzen ez den bitartean), EZKER ANITZA - IUren jarduera, posizionamendu eta proposamenen inguruko informazioa jasotzeko eskubidea lortuko da, bai eta EZKER ANITZA – IUren eztabaidak ezagutu eta hauetan eta hauteskunde zerrenden hautaketan parte hartzeko ere, dagokion organoak horrela erabakiko balu, barne karguak hautatzeko aukeraketak kenduta. Halaber, deituriko bileretan parte hartzeko eskubidea izango dute, bai eta lanketa kolektiboko arloetan eta erabakiak hartzeko asanblada irekietan ere.

Kontsiderazio berbera izango dute IUko hautagaitzetako kargu publiko independenteek, IUn parte hartzen duten 18 urtetik beherakoek eta afiliatuak ez diren ahaldu eta artekariak. Afiliatu gabe IUn parte hartzen dutenen betebeharra da erakundearen interes orokorrak defendatzea. Gizarte eta Politika Asanbladak afiliatuak ez diren pertsonen eta gizarte erakundeen partaidetza erak garatuko dituen arautegi bat egingo du. Halaber, aldekoen zentsua eguneratuko du erregularki.

III. IZENBURUA: ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUEI BURUZKOA

14. Artikulua: Izaera eta eremua

- a) Arau hauek, EZKER ANITZA – IU erakundea oinarritzen duten printzipio nagusiak aintzat hartuz, zuzenki aplikatu beharrekoak dira EZKER ANITZA - IUren eskumena diren erabakiak hartzeko prozesu guztietan.
- b) Erabakiak hartzeko prozesuak batasun irizpidetan oinarrituta egongo dira, uneoro, kontsensuaren bidez gehienbat, ahal den guztietan. Horrela ez balitz, bozkatzeko eskubidea duten pertsonen arteko bozketa bidez hartuko litzateke erabakia. Estatutuek beste gehiengo mota bat berariaz eskatu ezean, erabaki guztiak emandako botoen gehiengo soilak lortuta hartuko dira. Nolanahi ere, aurretik egindako eztabaida baten ostean etorriko dira erabakia edo bozketa. Eztabaidan, bozkatutako gaiaren inguruan dauden posizio ezberdinak kontrastatuko dira. Zerrendak bozkatzeko direnean, hautagaitzak bozkatzeko eskubidea duten pertsonen aurrean aurkezteko denbora nahikoa bermatu beharko da; halaber, eskubide hori gauzatzeko denbora eta espazioa egokitu beharko da ere.
- c) Bozketak besoa altxatuz egingo dira, hautagaitzak bozkatzeko direnean salbu eta bozkatzeko eskubidea duten bertaratutako pertsonen % 10ak isilpeko bozketa eskatu ezean indarreko estatutuetan jarritakoaren arabera.
- d) Estatutu hauen arabera, Euskadiko Koordinakundeak bozketa zuzenen antolakuntza dagozkien organoen esku uzteko gaitasuna dauka, hau da,

EZKER ANITZA - IUko militante edo aldeko guztientzako sufragio unibertsala, bai eta erabili ohi diren mekanismo horienak ere.

- Aldekoek barne arduren aukeratzea ez dakarten kontsultetan bozkatzeko aukera izango dute, dagokion organoak horrela erabakiko balu.
 - Afiliatuek antolatutako bozketa guztietan parte hartzeko aukera izango dute, dagokien arloan.
 - Bi kasu horietan, bozkatzeko aukera dutenen errolda egingo da, indarreko estatutuek diotenaren arabera, ADUren arautegi berezia errespetatuz.
- e) Gai politiko koiunturalen eta berebiziko inportantzia duten horien kasuan erreferendumak dei daitezke. Hauek, lotesleak izango dira. Erreferendumak berau deitu duen eremuaren eskumena diren materiak jorratuko ditu (tokikoa, lurralde mailakoa edo Euskadikoa). Deialdia dagokion Kontseilu Politikoaren gehiengoaz egingo da. Erreferendum prozesu horretan, posizio guztiak baldintza berdinetan defendatzea ahalbidetuko duten baldintzak bermatuko dira.
- f) Afiliatu guztiek Kontseilu Politikoak onarturiko indarreko kode etikoa ezagutu eta bere egin beharko dute.

15. Artikulua: Hautagaitzak izendatzeko prozesuen irekiera

Euskadiko Koordinakundearen eskumena da deituriko hauteskunde guztientzako hautagaitzak izendatzeko prozesuentzako egutegia eta irizpideak zehaztea.

Euskadiko Koordinakundeak nahi adina instrumentu sor ditzake hautagaitzak izendatzeko prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko, bai eta ahalik eta afiliatu gehienen partaidetza bermatzeko ere.

16. Artikulua: Hautagaitzak sortzea

Hautagaitza ezberdinak izendatzeko eta berresteko eskumena organo bakoitzeko eginkizunen definizioan argiro zehaztuta dago.

Hautagaitzen -barnekoak zein kanpokoak- izendatzea batasun irizpidetan oinarrituta egongo da uneoro, kontsentsuzko hautagaitza baten aurkezpenaren bidez, gehienbat, posiblea den guztietan. Horrela ez balitz, hautagaitza alternatibo, itxi eta blokeatuen sistema ezarriko da. Hautagaitzek bertaratutako % 10aren babeza izango dute, gutxienez, eta aipatua osatzen duten hautagaien onarpena berariaz agertu beharko da.

Hautagaitza ezberdinak bozkatu eta gero, bete beharreko postuak sistema proportzional hutsa aplikatuz beteko dira. Hautagaitza horiek ordena bat ezarri behar duten kasuetan, postuak sistema proportzional hutsa aplikatuz bete eta gero, koziante handieneko formula aritmetikoa aplikatuko da, hau da, hautagaitza bakoitzak lortu dituen postuak postu bakoitzaz zatituko da (1, 2, 3...), lorturiko kozianteak handienetik txikienera ordenatuz. Berdinketa emango balitz kozianteen artean, lehen berdinketa gutxiengoko hautagaitzari esleituko zaio, bigarrena gehiengoa duenari, eta horrela gainerakoak.

IV. IZENBURUA: ALDERDI POLITIKO ETA IRITZI KORRONTEEN INGURUKOA

1. Kapituluua: Alderdi politikoen ingurukoa

17. Artikulua: Elkarte edo alderdi baten integrazioa

- a) Erkidego mailako elkarte edo alderdi baten integrazioa eskuduna den bere organoak eskatu beharko dio EZKER ANITZA - IUko zuzendaritzari. Eskari hori EZKER ANITZA – IUko KOLEGIATUAren aurrean formalizatuko da. Onartzeko erabakia EUSKADIKO KOORDINAKUNDEAK hartuko du. Nolanahi ere, banakoen afiliazioaren printzipioa aplikatzekoa da kasu honetan ere, bai eta derrigorrezkoa ere.
- b) EZKER ANITZA – IUn boluntarioki sartzen diren elkarteek eta alderdiak berezkoak dituzten eskumenak EZKER ANITZA - IUren esku uzten dituzte eskusiboki. Eskumen horiek ondokoak dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan:
 - Edonolako hauteskunde prozesuetara aurkeztea.
 - Erakunde Ordezkaritza.
 - Aliantza politika orokorra.
- c) Erkidego mailako alderdi edo elkarte politiko bat EZKER ANITZA - IUn sartzen denean EZKER ANITZA - IUko korronte ideologiko eta politika zein antolakuntza errealitatea bilakatzen da, horrela onartzen denean.

2. Kapituluua: Iritzi korronteen ingurukoa

18. Artikulua: Izaera

- a) Gai berezien aurrean zein orokorrean beren burua iritzi korrontetzat hartzen duten taldeak egon daitezke EZKER ANITZA -IUren baitan. Egonkorak eta iraunkorak izan daitezke, ala ez, eta adierazpen gaitasun osoa izango dute, EZKER ANITZA - IUko politikari eta Estatutu hauei kalte egin gabe.
- b) Iritzi korronte ezberdinek beren eginkizunak betetzeko bitarteko material guztiak jasoko dituzte eta EZKER ANITZA -IUko komunikazio-bide eta argitalpenak erabili ahal izango dituzte, jendaurrean beren iritzia azaltzeko gaitasuna bermatzen zaielarik, unean uneko finantza-ahalmenekin beti ere.

19. Artikulua: Iritzi korronteen eremua

- a) Euskadiko eremuko iritzi korronte izango dira beren existentzia egiaztatzen duten horiek, afiliatuen % 10aren babesarekin, gutxienez. Korronte guztiek Estatutu hauetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- b) Iritzi Korronte bateko kide izateak ezin du abantailarik edo bidegaberik suposatu, inolaz ere, iritzi korronteren bateko kide ez diren afiliatuekiko.

20. Artikulua: Iritzi korronteen aitorpena

- a) Euskadiko eremuko iritzi korrontetzat hartuak izan daitezten, sustatzaileek arrazoitutako eskari bat aurkeztuko dute Euskadiko KOLEGIATUAren aurrean. Aipatu eskariak ondoko osagaiak agertu beharko ditu, gutxienez:
 - Iritzi Korrontearen izena eta izaera.
 - EZKER ANITZA – IUren barruan duten babesak. Horretarako, dagokion organoak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da; edo bere izaeraren aitorpena, Kontseilu Politikoaren aldetik.
 - Iritzi Korrontearen osagai eta irizpide bereizleak edo korronteak berezkoa duen beste edozein baldintzaren adierazpena.
- b) Korronteak EZKER ANITZA – IUko printzipio, programa, estatutu eta garapen-arauak betetzera behartuta daude.
- c) Beren sorrera azaldu eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten iritzi korronteak iritzi korronte bilakatuko dira automatikoki.
- d) Eskari dokumentua KOLEGIATUAren aurrean aurkeztuko da, Erakunde Idazkaritzaren aurretiko txostena izan ostean, eta berehala komunikatuko zaio Euskadiko Koordinakundeari, eskaria aurkeztu den data eta gero aipatu Koordinakundeak egingo duen hurrengo bileraren gai-zerrendan sar dezan. Gaia aztertzeko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da.
- e) Euskadiko KOLEGIATUAK, baldintzaren bat betetzen ez dela ikusiko balu, elkarte onartzeko zuzendu beharko diren alderdiak jakinaraziko dizkie sustatzaileei. Eta berdin egingo da dagoeneko aitortutako Iritzi Korrontekin, baldintzaren bat betetzen ez dutela ikusiko balitz.
- f) Euskadiko Koordinakundeak Iritzi Korronte baten aitorpena atzera bota dezake, frogatutako ez betetze larriak edo errepikatuak aurkituko balira.

21. Artikulua: Korronteen funtzionamendurako mugak

- a) EZKER ANITZA – IU da EZKER ANITZA – IU izena eta bere ikurrak erabiltzeko eskubidea duen bakarra, Estatutu hauetako eduki hauetan ezarritakoaren arabera.
- b) EZKER ANITZA – IUren baitako Iritzi Korrontek, beren jardueran, EZKER ANITZA -IUren iritzi publikoa zuzendaritza egituren baimena izan eta Erakunde osoa grafikoki adierazten duten ikurren eta EZKER ANITZA -IU izenaren abala duten bozeramaileek transmititzen dutela hartu beharko dute aintzat.
- c) Ondorioz, Korrontek ekoiztutako adierazpen publiko guztiek (dokumentu, ekitaldi, etab.) Korrontearen izena agertu beharko dute, argiro, gizarteak bere adierazpena dela jakin dezan inolako zalantzarik gabe, eta EZKER ANITZA -IUren adierazpen globalarekin nahastua izateko aukerarik egon ez dadin. EZKER ANITZA – IUren baitako korrontek, beren jarduean, EZKER ANITZA - IUko zuzendaritza organoak EZKER ANITZA - IU osoa ordezkatzeko gai diren bakarrak direla aintzat hartuko dute. Zuzendaritza organoek, ondorioz, erakundea ordezkatzeko dute ondoko eginkizunen garatzeari dagokionean:
 - Beste elkarte, alderdi edo taldeekiko harremanak.
 - Euskadiko edo beste edozein mailako erakunde edo organismoekiko harremanak.

- Ekonomia, gizarte edo politika izaerako erakundeekiko harremanak, erkidego mailan zein tokiko mailan.

22. Artikulua: Aldizkako iritzi korronteak

- a) Gai zehatz baten inguruko Iritzi Korronteak sor daitezke ere; Euskadiko eremuan aitortuak izan daitezten, Euskadiko Koordinakundeko kideen % 10aren babesa lortu beharko dute, gutxienez.
- b) Gai zehatzen inguruko Iritzi Korronteek EZKER ANITZA -IUren baitako beste Iritzi Korronteen eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte; eta arau berdinak bete beharko dituzte ere.

23. Artikulua: Iritzi korronteen babesa

- a) EZKER ANITZA – IUk, ahal den neurrian, korronteen jardueraren garapena babestuko du, Erakunde osoaren beharrak estali eta bermatu eta gero.
- b) Babes hori dagokien zuzendaritza organoei eskatuko zaie, arrazoitutako proposamenak aurkeztuz horretarako.
- c) Aipatu jarduerak, bestalde, EZKER ANITZA - IUren garapenari eta aberaste teorikoari lagundu beharko diote.
- d) Korronteek EZKER ANITZA – IUren aretoak erabil ditzakete beren bileretarako, aurretiaz eskatu eta baietza lortuz gero eta EZKER ANITZA – IUk arlo horretan garatzen duen eguneroko jarduerari kalte egiten ez badio.
- e) EZKER ANITZA – IUren baitako Iritzi Korronteek ez dute subiranotasun juridikorik izango, ezta berezko ondasunik ere.

24. Artikulua: Iritzi korronteak desagitea

EZKER ANITZA – IUren baitako Iritzi Korronte baten desagitea Euskadiko KOLEGIATUARI jakinarazi beharko zaio, desagitea gertatu eta berehala.

V. IZENBURUA: KARGU PUBLIKOAREN ESTATUTUA

25. Artikulua: Izaera eta eremua

- a) EZKER ANITZA – IUren erakundetik harreman zuzena ezartzen da kargu publikoekiko. EZKER ANITZA – IUko kargu publikoak dira Diputatuen Kongresu, Senatu, Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusi, Udaletxe, eremu guztietako gobernu eta exekutibo, Administrazio Kontseilu publiko, Patronatu, Partzuergo, Enpresa Publiko edo Mistoetan dituen ordezkariak, bai eta Erakunde Erantzukizunen bat duen ordezkari oro ere. Beren arautze eta mendekotasuna Estatutu hauetan ezarrita dago, hauteskunderen inguruko legediarekin bat eta aipatuari kalte egin gabe.
- b) EZKER ANITZA – IUk Diputatuen Kongresuan, Senatuan eta Europako Parlamentuan dituen kargu publikoek harreman zuzena izango dute EZKER ANITZA – IU eta IZQUIERDA UNIDA FEDERALeko zuzendaritza organoekin.

- c) Kargu publikoen eginkizun nagusia, EZKER ANITZA -IUK erakundetan dituen ordezkariak diren heinean, Hauteskunde Programa ezberdinak aplikatzea eta garatzea da.
- d) Gobernutik edo oposiziotik, programa EZKER ANITZA -Iuko kargu publikoen lanaren funtsezko oinarria da. Hauek, beren eskumeneko eremuan era sortzailean esku hartzeko aukera dute, EZKER ANITZA – IUKo zuzendaritza organo eskudunen erabakiak eta jarraibideak betez beti ere.
- e) Erakunde ordezkariaren ondoriozko konfiantza politikoko langileek, xede hauetarako, kargu publikoek duten kontsiderazio berbera dute, erakunde publikoekin eta EZKER ANITZA – IU berarekin duten lan- edo kontratu-harremana dena dela.

26. Artikulua: Kargu publikoaren eskumenak

- a) EZKER ANITZA – IU berari dagokion eremuan ordezkatzeko, bere erakunde taldearen baitan duen erantzukizuna eta arduraren arabera.
- b) Eguneroko jardunean, beharrezko izapideak egitea eta ekimenak aurkeztea, hauteskunde programa eta aipatua erakundetan garatzen duten ebazpenak eta akordioak betez.
- c) Proposamen politikoak egitea zuzendaritza organoari, hauteskunde programaren ildo nagusien inguruan, aipatuak etengabe eguneratu, interpretatu eta garatzeko esfortzuaren baitan.
- d) Lege eta arautegi ezberdinek esleitzen dizkietenak, EZKER ANITZA -IUKo afiliatuentzat Estatutu hauetan zehazten den marko politikoaren baitan.
- e) Kargu Publikoaren Estatutu honek beren ordezkariak publikoak EZKER ANITZA -IUri esker lortu duten pertsona guztiei dagokie, beren afiliazio politikoa dena dela.

27. Artikulua: Kargu publikoaren eskubideak eta betebeharrak

EZKER ANITZA - IUKo kargu publikoen eskubideak eta betebeharrak dira EZKER ANITZA -IUKo afiliatu guztiek dituzten berberak. Estatutu horietan ezarritakoaren arabera, inolako salbuespen edo murrizketarik gabe eta, hain zuzen ere, beren erakunde ordezkariak gauzatu ahal izateko, ondokoak:

A. Eskubideak

1. Beren eginkizuna errespetatzea EZKER ANITZA – IUKen aldetik, eragiten dieten edo beren eskumena diren erabaki edo txosten guztien informazioa jasotzea.
2. Beren jardura garatzeko babes teknikoa eta laguntza jasotzea.
3. Kargua gauzatzearen ondoriozko arazoaren aurreko defentsa juridikoa jasotzea.
4. EZKER ANITZA – IUKen ordezkari publikoak izatea bere kargua barne hartzen duen erakundearen baitan.
5. Hala badagokio, EZKER ANITZA -IUK ezarritako ordainsaria eta kalte-ordainak jasotzea. Proposamen politikoak eta programa garatzeko proposamenak egitea EZKER ANITZA - IUKo zuzendaritza organoari.

6. EZKER ANITZA -Iuko ordezkari gisa jorratzen dituen gaien inguruko etengabeko heziketa eta prestakuntza jasotzea.
7. Bere eginkizunak eraginkortasunez garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak izatea.

B. Betebeharrak

1. EZKER ANITZA -IUREKIKO leial eta konprometitua izatea, bere hauteskunde zerrendetan hautatua izan zen heinean. Kargu Publikoek, horrenbestez, EZKER ANITZA - IUn gehiengoz onartutako proiektuaren ildo nagusiak gauzatu beharko dituzte, beren ekintza publikoa proiektu horrekin bat gauzatuz. Kargu Publikoek, beren ekintza politikoa hartzen duen erakunde eremuaren baitan, ez dute beren burua ordezkatzeko, ezta iritzi korrante zehatz bat ere; EZKER ANITZA - IU osoa ordezkatzeko dute.
2. Karguaren eginkizunak bete-beteko arduraldiz gauzatea, bere erakunde taldearen eta erakundearen eginkizun banaketarekin bat.
3. EZKER ANITZA – IUKO hauteskunde programa errespetatzea eta betetzea. EZKER ANITZA – IUKO organo eskudunek onartutako Printzipio Nagusi, Estatutu, Akordio eta Ebazpenak. Ezin du, inolaz ere, horien aurka egin bere kargu edo eginkizunetatik gauzaturako iritzi edo ekintza publiko edo neurri politikoen bidez.
4. EZKER ANITZA – IU erakundea, gizarte mugimenduak eta hiritarrak uneoro eta etengabe informatzea.
5. Etengabeko heziketa eta gaitzea, karguarekin egokiro bete ahal izateko.
6. Bere diru-sarrerak eta bere interes ekonomikoen eta ondarearen egoera eguneratua deklaratzeko, urtero eta publikoki, eta agintaldiaren hasieran eta amaieran bereziki; EZKER ANITZA - IUKO zuzendaritzak interesen erregistro bat ezarriko du. EZKER ANITZA - IUKO organo eskudunak ezartzen duen erregimen ekonomikoa betetzea eta errespetatzea.
7. EZKER ANITZA - IUKO organo eskudunak ezartzen duen erregimen ekonomikoa betetzea eta errespetatzea.
8. Kargua EZKER ANITZA – IUKO dagokion organoaren esanera mantentzea.
9. Bere lanaz informatzea, hilean behin gutxienez, bere eskumeneko eremuko ohiko organoei. Bere lanaren urteko balantzea aurkeztea EZKER ANITZA - IUKO ohiko organoei, eztabaidatua izan dadin. EZKER ANITZA - IUKO bere eskumeneko eremuan duen atalean izena ematea eta parte hartzea, lanketa kolektiboko arloetako programak egin eta garatzeko prozesuan aktiboki parte hartuz.
10. Kargu publiko diren guztiek edozein kontzepturen ondorioz jasotzen dituzten ordainak EZKER ANITZA - IUREN esku utzi beharko dituzte. Aurrekoa ez egiteak arau hauen ez betetzea ekarriko du eta Euskadiko KOLEGIATUAK, ondorioz, espedientea ireki eta bidezkoak deritzon kautelazko neurri guztiak har ditzake, bere ekimenez zein Erakunde Idazkaritzak berariaz hala eskatuta.
11. EZKER ANITZA – IUKO kargu publikoen jarduna eta bozketa, erakundearen baitan, zuzendaritza politikoak edo dagokion erakunde taldeak beren eskumenean araberak onartu dituen akordioaren mende geldituko dira. Kargu publikoek, EZKER ANITZA – IURI atxikita egon ala ez, Kargu Publikoaren Estatutu honen mende geldituko dira.

12. Kargu edo erantzukizun publikoa uztea, boluntarioki eta berehala, Estatutu hauek ez betetzeagatik edo EZKER ANITZA -IUKo militante edo aldeko izaten uzteagatik.
13. Euskadiko Erakunde Idazkaritzatik bidalitako ekimenak aurkeztea eta honek Euskadiko Kontseilu Politikoarekin edo Euskadiko KOLEGIATUarekin bat ezarri duen botoa errespetatzea.
14. Dagokien organo politikoetatik (KOLEGIATUA eta Euskadiko Kontseilu Politikoa legebiltzar talderako, Lurraldeko Iraunkorrek batzar nagusietako karguetarako eta Oinarrizko Iraunkorrek eta Oinarrizko Asanbladak udal taldetarako) ezarritako jarraibide politikoak jarraitzea.
15. Kargu publiko guztiek beren militantzia-eremuko asanbladan (oinarrizkoa, tokikoa edo lurralde mailakoa) parte hartu beharko dute, beste eginkizunen batek aipatua ezinezkoa egiten ez badu.

28. Artikulua: Bateriaezintasunak

- a) Ezingo da bi Kargu Publiko mantendu, kasu oso berezitan salbu; horietan, bi karguak mantentzea Erakundearen mesederako dela erabaki beharko du eremu horretako organoak, bere kideen % 60aren babesarekin gutxienez.
- b) Kargu publikoren bat duten eta, aldi berean, EZKER ANITZA -IUKo baitan antolakuntza edo politika ardurak dituzten EZKER ANITZA - IUKo afiliatuek beren jardunaren balantzea egin beharko dute noizean behin, bateraezintasun maila zehaztu eta horren arabera erabakia hartzeko. Nolanahi ere, bi eginkizun batera ez egitea izan beharko litzateke joera.
- c) Kargu publikoaren eginkizunen gauzatzean gardentasun eta etika handiagoa bermatu ahal izateko, ezingo dira kargu publikoak erakundearen izan dezakeen esku-hartze ahalmena murriz dezaketen jarduerak edo bere egoera dela eta esku artean izan dezakeen informazioari esker bere jarduera pribatuari on egin diezaioten jarduerak aldi berean egin.
- d) Hautetsiek urtero entregatu beharko diote, dagokion zuzendaritza organoari, beren ondare interesen inguruko deklarazioaren kopia bat, erakundeek eskatzen dituzten dokumentuak direnak direla.

VI. IZENBURUA: LANKETA KOLEKTIBOKO ARLOEN INGURUAN

29. Artikulua: Lanketa kolektiboko arloetako osagai definitzaileak

- Gizarte partaidetza eta mobilizazio instrumentuak.
- Programa proposamenak egiteko markoak.
- EZKER ANITZA – IUKo Mobilizazio proposamenen eta aldarrikapen, politika edo erakunde mailetako ekintzen sustatzaileak.
- Gizartearekiko eta gizarte mugimendurekiko harremanen osagai nagusia.
- Afiliatu eta aldekoen partaidetza gunea.

30. Artikulua: Arloen antolaketa

- Arloak lurralde mailan eta euskal erkidego mailan ezarriko dira, bai eta ahal den udalerrri guztietan ere.
- Beren izaera irekia, malgua eta partizipatiboa bermatuko duten antolakuntza-mekanismoak aplikatuko dituzte arloek. Beren koordinazioaz arduratuko diren pertsonak demokratikoki aukeratuak izango dira aipatuetan parte hartzen dutenen artean. KOLEGIATUAK edo dagokion Kontseilu Politikoak izendapen hori berretsi beharko dute ondoren.
- Arloek beren jarduera garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak izango dituzte beren esku. EZKER ANITZA - IUko zuzendaritzak eskainiko ditu aipatu baliabideak eta erakundearen finantzazio irizpide orokorrak aintzat hartuz, arlo bakoitzeko Euskadi mailako koordinatzaileak eskatuta eta arlo bakoitzean onartutako lan plangintzaren arabera.
- Arloen partaidetza zuzendaritza organoetan arlo bakoitzaren Koordinatzailearen bidez gauzatuko da. Honek, dagokion kontseilu politikoan parte hartuko du, bere iritzia emateko eskubidea duelarik, ez ordea bozkatzeko eskubidea.
- Arloko batzarra aipatuari atxikitako pertsona guztiek osatuko dute.
- Arloko batzarrak EAE mailako arloaren koordinazio orokorra proposatuko du; honek, Euskadiko KOLEGIATUAK berretsia izan beharko du.
- Arloetako erabakitze mekanismoa kontsentsuaren printzipioan oinarrituko da. Akordioa egongo ez balitz, bozketa adierazle bat egingo da proposamenak EZKER ANITZA - IUko zuzendaritza organoen esku uzteko, dagokion erabakia har dezaten.
- Arloak dira jorratzen dituzten gaiak dagokienean EZKER ANITZA -IUK izan beharko lituzkeen programa lerroak Euskadiko Koordinakundeari proposatuko dizkiotenak, eztabaida eta onar ditzan.

31. Artikulua: Arlo kopurua

Ondoko arloak ezarriko dira Euskal Autonomia Erkidegoan:

- Enplegu eta Eredu Ekonomikoa
- Hezkuntza
- Kultura
- Ekologia eta Ingurumena
- Bakea eta Elkartasuna
- Osasuna eta Droga-mendekotasuna
- Gizarte politika eta Ezgaitasuna
- Migrazioak
- Emakumea
- Gazteria
- Erretiratuak eta pentsiodunak
- Askatze afektibo-sexualaren ingurukoa
- Mugimendu errepublikazalea eta memoria historikoa

Arloak sortzeko eta aldatzeko proposamenak beren esku-hartze eremuari dagokion zuzendaritza organoak onartu beharko ditu. EAE mailan, Euskadiko

Koordinakundeak onartuko ditu, Lurralde Kontseilu Politikoak lurralde mailan eta Kontseilu Politikoak tokiko mailan.

32. Artikulua: Arloen koordinazioa

Eginkizun hori Euskadiko Arlo Koordinatzaileak gauzatuko du. Euskadiko presidentetzak arloak koordinatzeko hautaturiko pertsona berretsi beharko du.

Kargurako hautatutako pertsonak Euskadiko Presidentetzari atxikitako kide gisa parte har dezake, hau da, hitzarekin baina botorik gabe. Euskadiko Koordinakundearen parte hartuko du ere, ahotsarekin baina botorik gabe.

Beteko dituen eginkizunak:

- Hiru lurraldetako arloak eta arloak elkarren artean koordinatzea, arlo bakoitzeko arduradunen arteko topaketa erregularrak artikulatuz horretarako.
- Informazio-kanala izatea arloen eta EZKER ANITZA – IUko zuzendaritza eta egituraren, erakunde-laneko eremuen eta gizarte mugimenduen eremuaren artean, beharrezkoa den guztietan.
- Arloek egindako material baseen artean, zuzendaritza organoen eta gizartean zehar hedatzea.
- Arlo berriak sortzeko prozesuak sustatzea eta babestea eta egun dauden arloak sendotzea, aipatuak onartzeko arrazoitutako proposamena bidaliz organo eskudunei.
- Ikasturte bakoitzerako helburuak jasoko dituen Lan Plangintza bat garatzea. Aipatu plangintza EAEko arlo guztiekin batera egingo da. Euskadiko Koordinakundeak aipatu lan plangintza onartu beharko du.
- Arloek EZKER ANITZA - IUko hauteskunde programei egin dieten ekarpenak koordinatzea.

VII. IZENBURUA: EGITURA ETA ZUZENDARITZA ORGANOEN INGURUKOA

33. Artikulua: Organo kolegiatuetako xedapen komunak

Organo kolegiatuetako xedapen komunak:

- Tokiko Asanblada eta Tokiko Kolegiatua.
- Lurralde Asanblada eta Lurralde Kolegiatua.
- Euskadiko Asanblada, Euskadiko Koordinakundea eta Euskadiko Kolegiatua.

Aurreko organo horiek beren barne arautegia onartuko dute egokitzen jotzen badute. Honek, ondokoak hartuko ditu barne:

- Beste organoen esku utz daitezkeen eta utzi ezinak diren materien zerrenda.
- Eztabaidak antolatzeke erregimena: txandak, esku-harmenak, iraupena, etab.

Organo horiek astebete lehenago deituko dira beti (hiru egun lehenago KOLEGIATUaren kasuan). Horretarako, dokumentazio guztia bidaliko zaie beren kideei, aurreko bileraren akta barne. Antolakuntza arduradunaren ardura da baldintza horren betetzea bermatzea. Gai-zerrendan sartuta ez dauden gaiak “Bestelakoak” atalean jorratuko dira, ezarritako gai-zerrendarekin bukatu ostean. Berdina gertatuko da gai baten inguruko dokumentazioa bidali gabe gelditzen den kasuetan.

Egungo organo politikoaren osaketa ekarri zuten zerrendak publikoak izango dira eta horietatik abiatuta, egon litezkeen bajak beteko dira, zerrendan kargua uzten duen pertsonaren hurrengoa dena aukeratuz kargua betetzeko.

Ordezkapenak balekoak izan daitezzen ordezkoak bere oniritzia eman beharko du, bere partaidetza izango duen organoaren aurrean ageriz zein hartu izanaren adierazpena daraman ziurtatutako eskutitz bat bidaliz.

Halaber, bileraren ohiko deialdira azken 12 hilabetetan justifikatutako inolako arrazoirik gabe 3 aldiz jarraian edo jarraiak ez diren 5 aldiz agertzen ez direnak ordezkatuak izango dira ere. Egin aurretik, jakinarazpen pertsonal bat bidaliko zaie aipatuei eta gaia dagokion organoaren hurrengo bilerarako gai-zerrendan sartuko da.

Bilerak irekiak izango dira, organoak kontrakoa erabaki ezean, eta ondoko ezaugarriak izango dituzte:

- Euskadiko Asanblada, Euskadiko Koordinakundea eta Euskadiko Kolegiatua: militante guztiei irekita.
- Asanbladak: militante ez direnei irekita ere.

1. Kapitulua: Oinarrizko organo politikoaren ingurukoa

34. Artikulua: Tokiko asanbladak

- a) EZKER ANITZA – IUren oinarrizko erakundea Oinarrizko Asanblada da. Tokiko Asanbladak ez beste guztiak (auzokoak, arlokoak, etab.), oinarrizko Kolegiatu eskudunak onartu beharko ditu.
- b) Oinarrizko Asanbladak EZKER ANITZA – IUren organo subiranoa dira beren eremuan eta funtsezko osagaia dira EZKER ANITZA - IUren antolaketarako. Egoerak hala eskatzen duenean, lurraldeko edo arloko taldeak sor daitezke beren barruan.
- c) Oinarrizko Asanbladen ardura da afiliatuek beren betebeharrak betetzen dituztela ziurtatzea, bai eta beren partaidetza bermatzea EZKER ANITZA - IUko atazetan.
- d) Ondokoak dira Oinarrizko Asanbladaren organoak: Asanbladako Batzarra, Asanbladako Koordinakundea (Batzarrak erabakiko du bere tamaina) eta Asanbladako Koordinatzailea. Oinarrizko kontseilu politikoak ondokoak hautatuko ditu, gutxienez, bere kideen artean: Koordinatzaile bat, Antolaketa Arduradun bat eta Udal Arduradun bat.

- e) Oinarrizko Asanblada bat formalki osatuko da 4 afiliatu dituen gutxienez, eraketa-akta gauzatzen dutenean eta aipatua Euskadiko Antolaketa Arduradunaren esku uzten dutenean.
- f) Oinarrizko Asanbladak bere arautegi berezia zehatz dezake funtzionamendu egokia bermatzeko. Aipatu arautegia Oinarrizko Asanbladako Koordinakundeak artikulatuko du, asanbladak eskatuta edo bere ekimenez, eta asanbladako batzarrak aipatua aldatu edo berresteko gaitasuna dauka.

35. Artikulua: Oinarrizko asanbladako batzarra

- a) Asanbladako Koordinakundeak edo Asanbladako Koordinatzaileak Oinarrizko Asanbladako Batzarra deituko dute, bi hilabete behin, ohiko bilera gisa. Nolanahi ere, Tokiko Asanblada bateko afiliatuen % 25ak Ezohiko batzar bat egitea eska diezaioke tokiko asanbladako Koordinakundeari, gai-zerrenda zehaztuz eta aipatu gai-zerrenda aztertze soilik. Bilera, eskaria jaso eta hurrengo 15 egun naturaletan egin beharko da, gehienez. Bilera epe barruan egingo ez balitz, Euskadiko KOLEGIATUAK dei lezake Antolaketa Idazkaritzaren bidez. Horretarako, 10 egun natural epea izango luke gutxienez eta 20 egun naturalekoa gehienez.
- b) Oinarrizko Asanbladako Batzarra asanblada horretako afiliatuek osatzen dute eta Estatuetan salbuesten diren kasuetan kenduta, nahi duten pertsona guztiek parte har dezakete: aldekoak, gizarte edo auzo elkartetako, sindikatuetako kideak, etab.
- c) Oinarrizko Asanbladako Batzarra behar bezala deitzeko bere data, lekua eta ordua jakinarazi beharko zaie afiliatu guztiei eta bere gai-zerrenda zehatza bidali beharko zaie ere. Aipatu gai-zerrenda eztabaidarako eta erabakiak hartzeko markoa izango da eta beharrezko dokumentu guztia, horrelakorik balego, aldeurre nahikoarekin bidali beharko zaie partaide guztiei. Afiliatuak ez diren pertsona guztien ahalik eta partaidetza handiagoa bermatzeko, Oinarrizko Asanbladako Batzarren deialdia ohiko bideen bidez (kartelak, aldeko bidalitako eskutitzak, taldeak, etab.) iragarriko da.

36. Artikulua: Oinarrizko asanbladako batzarraren eskumenak

- a) EZKER ANITZA – IUren eta IU Federalen politika edo programa lerro orokor edo puntualak azaltzea eta eztabaidatzea.
- b) Iritziak jasotzea eta programa eta ekintza proposamenak eztabaidatzea, bai eta lan plangintza bat zehaztea urtero. Asanbladako Iraunkorrek aurkeztu beharko du plangintza, urteko lehen bileran. Bilera horretan, aurreko urteko balantzea egin eta Kontseilu Politikoko arduradunek beren lana azaldu beharko dute ere.
- c) Udal Hauteskunde Programa eztabaidatzea eta egitea.
- d) EZKER ANITZA - IUk egindako dokumentuak eztabaidatzea, bai eta zuzenketak eta/edo proposamenak bidaltzea ere dokumentu horiek onartzen dituzten goi-mailako organoei.
- e) EZKER ANITZA -IUko boto-emaeleek bere bilakaeraren inguruan duten iritzia ezagutzea (gizartean egindakoen zein erakundetan egindakoen inguruko iritzia).

- f) Mobilizazioak prestatzea.
- g) Lanketa Arloekin konektatzea, lan komuna sustatuz.
- h) Udal mailan egiten den erakunde lanaren jarraipena egitea noizean behin.
- i) Estatutu hauen beste artikulua batzuetan zehaztutako beste guztiak.
- j) Balizko akordio politikoak eztabaidatzea eta onartzea, bozketa bidez, akordioak gauzatu baino lehen. Horretarako beharrezkoak diren asanbladak deituko dira.

37. Artikulua: Salbuespenak

Salbuespen gisa, Tokiko Asanbladetan afiliatu guztiak har ditzaketen batzarrak egingo dira; bozkatzeko aukera izango duten bakarrak, ordea, Asanblada egiteko egunean afiliatu gisa bi hilabete gutxienez eman dituzten horiek izango dira; ondoko bozketetan:

- a) Asanbladako Iraunkorra aukeratzea eta kargutik kentzea.
- b) Udal hauteskunderako hautagaitza onartzea.
- c) Udal Hauteskunde Programa onartzea.
- d) Udal mailako beste alderdi politikoekin eginiko aliantzak onartzea, bai eta tokiko Gobernu programak ere beste indar politikoren batekin gobernatuz gero, EUSKADIKO KOORDINAKUNDEAK onarturiko aliantza-politikarekin bat.
- e) Asanbladak beste organo batzuetan izango dituen ordezkariak aukeratzea.
- f) Tokiko Asanbladako kontuen egoerak ezagutzea.
- g) Batzar Nagusi, Hauteskunde Orokor, Autonomia mailako eta Europarako hauteskundeetarako proposamenak egitea.
- h) Bere egoitza asanblada zehatz baten eremutik beste asanblada baten eremura aldatzen duen EZKER ANITZA - IUko pertsona orok lekualdatze hori jakinarazi beharko du eta dagozkion eskubideak automatikoki helaraziko zaizkio.

38. Artikulua: Asanbladako koordinakundea

- a) Zuzendaritza eta koordinazio organo gorena da Oinarrizko Asanbladako Batzarren artean.
- b) Lau urtean behin aukeratua izango da, gutxienez.
- c) Funtzionamendu kolegiatuko organoa, ondoko osaera izango du gutxienez:
 1. Asanbladako Koordinatzailea, Antolaketa Arduraduna eta Udal Arduraduna; hauek, asanbladak erabakitako Koordinakundeko kideen artean aukeratuak izango dira.
 2. Oinarrizko Asanbladak berak erabaki dituen kide kopurua.
- d) Oinarrizko Koordinakundea Asanbladako Koordinatzaileak deituko du, edo bere kideen herenak hala eskatuta.
- e) Oinarrizko Asanbladako Batzarrak organo hau operatiboa den ala ez erabakiko du, asanblada horren ezaugarrien arabera.

39. Artikulua: Koordinakundearen eskumenak

- a) Asanbladako koordinatzailea aukeratzea bere kideen artean.

- b) Oinarrizko Asanbladako Batzarren gai-zerrendak eta deialdiak prestatzea, ahalik eta partaidetzarik handiena bermatuz aipatuetan.
- c) Bere kideen artean, lana egokiro garatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten ardurak banatzea.
- d) Egokiak deritzon politika, programa edo erakunde proposamen guztiak bidaltzea Oinarrizko Asanbladako Batzarrari, udal eremuaren baitan, gehienbat udal hauteskunde programari, udal hautagaitzari eta EZKER ANITZA - IUko beste organo batzuetako ordezkariak aukeratzeko prozesuei dagozkienak.
- e) Oinarrizko Asanbladako Batzarretan onarturiko erabakiak eta ekimenak garatzen dituzten politika eta erakunde erabaki guztiak hartzea.
- f) Oinarrizko Asanbladako Batzarrak berariaz esleitzen dizkion eskumen guztiak.
- g) Estatutu hauetako beste artikulua batzuetan zehaztutako beste guztiak.
- h) Bere eskumenerako eremuko kargu publikoen erakunde jardura ebaluatzea, zuzentzea eta sustatzea, EZKER ANITZA - IUko ikuspegi orokorretik. Bere udaleko udal taldearena bereziki.
- i) Afiliatuen aktak eta bajak kudeatzea, afiliazio arautegiarekin bat, ADUn eguneratuak izan daitezzen.

40. Artikulua: Asanbladako Koordinatzailearen eginkizunak

- a) Oinarrizko Kontseilu Politikoaren, Koordinakundearen eta Oinarrizko Asanblada Batzarraren bilerak deitzea eta beren buru izatea, bai eta horien lana sustatzea.
- b) EZKER ANITZA – IUren ordezkaria izatea udal eremuan.
- c) Oinarrizko Koordinakundeak edo Oinarrizko Asanblada Batzarrak berariaz esleitzen dizkieten guztiak.
- d) Estatutu hauetako beste artikulua batzuetan zehaztutako beste guztiak.

41. Artikulua: Etxez edo lanez aldatzea

Bere egoitza asanblada zehatz baten eremutik beste asanblada baten eremura aldatzen duen EZKER ANITZA - IUko edo IUko beste edozein federazioko pertsona orok lekualdatze hori jakinarazi beharko du eta dagozkion eskubideak automatikoki helaraziko zaizkio.

2. Kapitulua: Lurraldeko organo politikoak

Printzipio Orokorak

EZKER ANITZA – IU Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako Oinarrizko Asanbladez osaturiko erakunde politiko bat da.

EZKER ANITZA – IUko zuzendaritza organo kolegiatuak beraienez aplikagarriak diren EZKER ANITZA – IUko printzipioen definizioan ezarritako printzipio nagusien mende egongo dira.

Nolanahi ere, izaera exekutiboko EZKER ANITZA – IUko zuzendaritza organoetako (Lurralde Koordinakundea) kideak bileretara joatera behartuta daude. Azken 12 hilabeteotan hiru aldiz jarraian edo jarraiak ez diren bost aldiz kale egiten dutenek, justifikaziorik gabe, baja automatikoa jasoko dute organo horietatik. Ordezkatzea hautaketan aplikatutako irizpide berberekin egingo da.

42. Artikulua: Lurralde Asanblada

Lurralde Asanblada EZKER ANITZA – IUko organo gorena da bere eskumeneko Lurralde Historikoan. Asanbladak Lurralde Historiko horretarako politika berezia zehaztuko du. Ohiko bilerak lau urtean behin egingo ditu. Ezohiko bilerak egingo ditu, ere, Lurraldeko Koordinakundeko kideetako % 60ak horrela erabakitzen duenean edo lurralde historiko horretako afiliatuen % 51k aipatua eskatzen duenean.

43. Artikulua: Lurralde Asanbladen osaketa

- Ahots eta botorekin: Lurralde Oinarrizko Asanbladetakako ordezkariak, Lurralde Koordinakundeak onarturiko arauen arabera.
- Ordezkar horiek aktiboki zein pasiboki aukeratzekoan, Lurralde Asanblada egiteko egunean gutxienez 60 egun natural afiliatuta daramatzaten pertsonak parte hartuko dute soilik.
- Ahotsarekin: Ordezkar horiek izendatuak izan ez diren Euskadiko Koordinakundeko eta Lurralde Koordinakundeko kideak.
- Gonbidatu gisa: Aukeratzutako pertsonak, Lurralde Kontseilu Politikoak erabakitako arauen arabera.

44. Artikulua: Lurralde Asanbladaren funtzioak

- Lurralde horretarako EZKER ANITZA – IUko politika, programa lerro eta ildo nagusiak onartzea. Hauek, EZKER ANITZA - IUk Euskadi osorako onartu dituen horiekin bat joan beharko dute.
- Lurralde Koordinakundeko kideen kopurua zehaztea eta aipatuak aukeratzeko.
- Lurralde Koordinakundea biltzea, aukeratu izan eta gero, Lurralde Asanbladaren eremuan, eta Koordinatzailea aukeratzeko.
- Estatutu hauetako beste artikulua batzuetan zehaztutako beste guztiak.

45. Artikulua: Lurralde Koordinakundea

- a) Lurralde Asanbladen arteko zuzendaritza eta koordinazio organo gorena da.
- b) Lurralde Asanbladan aukeraturiko kideez osatua egongo da. Bajaren bat egongo balitz horien artean, hutsunea aukeraketa egiteko aplikaturiko irizpideak aplikatuz bete da.
- c) Ohiko bilerak hilean behin egingo ditu. Ezohikoak, Lurralde Koordinatzaileak deituta edo Lurralde Koordinakundeko kideetako heren batek eskatuta.
- d) Lurralde Koordinakundeak bere lanaren garapen egokia bermatzeko beharrezkotzat jotzen dituen nahi adina kargu onartzeko gaitasuna dauka.

46. Artikulua: Lurralde Koordinakundearen funtzioak

- a) Lurralde Asanblada Deitzea.
- b) Lurralde Asanbladarako arauak, gai-zerrenda, proposamenak eta dokumentuak onartzea.
- c) Asanbladarako Arautegia, Mahaiaren osaketa eta ordutegia proposatzea Lurralde Asanbladari.
- d) Bere lurraldeko lan politikoa zuzentzea eta sustatzea.
- e) EZKER ANITZA - IUren ibilbide politikoa aztertzea eta ebaluatzea eta aipatua handitu eta garatuko duten politika eta erakunde akordioak hartzea, Euskadiko Asanbladak onarturiko ildo orokorrekin bat.
- f) Bere eskumeneko eremuko kargu publikoen erakunde jardura ebaluatzea, zuzentzea eta sustatzea, EZKER ANITZA -IUko ikuspegi orokorretik, lurralde horretako Batzar Nagusietako taldearen lana jarraitzea barne.
- g) Garrantzi bereziko gaiak bozkatzera deitzea, egokia deritzon moduan eta aurretik azaldutako izaera loteslearekin, bere eskumeneko eremuaren eta lurraldearen baitan.
- h) Bere eremuko udalerrietako udal hauteskundetarako hautagaitzak berrestea. Berrespenik ez balego Lurralde Koordinakundea, 2/3eko gehiengoa lortuz gero, proposamen berri bat dagokion Oinarrizko Asanbladarekin adosten saiatuko da. Prozesu hori bukatuta akordiorik ez balego, bere proposamena egingo dio Euskadiko Koordinakundeari, behin betirako onar dezan.
- i) Batzar Nagusietarako barruti bakoitzeko zerrendak onartzea eta Ahalduen Nagusirako Hautagaia aukeratzea aipatuetako buruen artean.
- j) Lurralde Koordinakundeak eztabaida eta akordioen inguruko informazioa bidali beharko die bere Oinarrizko Asanbladei.
- k) Estatutu hauetako beste artikulua batzuetan zehaztutako beste guztiak.

47. Artikulua: Lurralde Koordinatzailea

Lurralde Koordinatzailearen eginkizunak dira:

- a) Lurralde Koordinakundearen bilerak deitzea eta horien buru izatea, bai eta bere lanak koordinatzea eta sustatzea.
- b) EZKER ANITZA – IUren ordezkaria izatea lurralde eremuan.
- c) Lurralde Koordinakundeak berariaz esleitzen dizkion guztiak.
- d) Estatutu hauetako beste artikulua batzuetan zehaztutako beste guztiak.

3. Kapituluak: Euskadiko organo politikoak

48. Artikulua: Euskadiko Asanblada

- a) EZKER ANITZA - IUren subiranotasuna Euskadiko Asanbladan dago. Bera da bere politika orokorra zehazten duena.
- b) Ohiko bilerak lau urtean behin egingo ditu. Ezohikoak, Euskadiko Koordinakundeko kideen % 60ak horrela erabakitzen badu edo EZKER ANITZA - IUko afiliatuen % 51k eskatuta. Euskadiko Asanblada osatzen dute:

Ahots eta botorekin:

Oinarrizko Asanbladetako ordezkariak, Euskadiko Koordinakundeak onarturiko arauen arabera. Ordezkar horiek aktiboki zein pasiboki aukeratzerakoan, Euskadiko Asanblada egiteko egunean gutxienez 60 egun natural afiliatuta daramatzaten pertsonak parte hartuko dute soilik.

Ahotsarekin:

Ordezkar izendatuak izan ez diren Euskadiko Koordinakundeko kideak.

Gonbidatu gisa:

Erabakitako pertsonak, Euskadiko Koordinakundeak onartutako arauen arabera.

49. Artikulua: Euskadiko Asanbladaren eginkizunak

- a) EZKER ANITZA - IUko politika eta programa ildoak eta lerro orokorrak onartzea. Koordinatzaile Nagusiaren kudeaketa txostena eztabaidatzea eta onartzea, dagokionean.
- b) Euskadiko Koordinakundearen osaketa erabakitzea eta dagokion kideak aukeratzea, bai eta Kontuak Ikuskatzeko Batzordeko eta Bermeen batzordeko kideak hautatzea ere.
- c) EZKER ANITZA – IUren Estatutuak onartzea.
- d) Aurkeztea adostu diren proposamen edo araudi guztiak eztabaidatzea eta, dagokionean, onartzea.
- e) Estatutu hauetako beste artikulua batzuetan zehaztutako beste guztiak.

50. Artikulua: Euskadiko Koordinakundea

- a) Euskadiko Asanbladen arteko zuzendaritza eta koordinazio organo gorena da. EZKER ANITZA – IUko gobernu, ordezkari, administrazio eta erabaki organo gorena da eta zuzenbide-gaitasun gehien dituen organoa da, ez baita mugarik ekitaldi edo negozio juridikoren bat gauzatzeko, ez eta edozein mota edo jurisdikzioko Epaitegi batean aritzeko. Era berean, Administrazio Publiko guztien aurrean aritzeko gaitasuna du eta mota guztietako botereak eman eta eskumenak delegatzeko ahalmena du, bai eta bietako edozein bertan behera uzteko ere. Antolatutako alderdi eta korronteei bi ordezkari izango dituzte, beren afiliatuen eta pisu erlatiboaren arabera banatuko direnak.
- b) Ondoko kideak izango ditu:
 - Euskadiko Asanbladak aukeratutako kideak. Bajaren bat egongo balitz horien artean, hutsunea aukeraketa egiteko aplikaturiko irizpideak aplikatuz beteko da.
 - Ahotsarekin baina botorik gabe parte hartuko dute Lurralde Koordinatzaileak (Euskadiko Koordinakundeko kide izendatuak izan ez badira), Arloko Koordinatzaileak eta Kontseilu Politiko Federaleko kideak.
- c) Ohiko bilerak hiru hilean behin egingo ditu. Ezohikoak, Euskadiko Koordinakundeak edo Euskadiko KOLEGIATUAK deituta edo Euskadiko Koordinakundeko kideetako heren batek eskatuta. Azken kasu horretan,

Euskadiko KOLEGIATUAK eskaria jaso eta hurrengo bilerara deituko du Euskadiko Koordinakundea, beti ere 20 egun naturaleko epearen barruan.

51. Artikulua: Euskadiko Koordinakundearen eginkizunak

- a) Koordinatzaile Nagusia hautatzea
- b) Euskadiko Asanblada Orokorra deitzea.
- c) Euskadiko Asanblada Nagusirako arauak, gai-zerrenda, proposamenak eta dokumentuak onartzea.
- d) Asanbladarako Arautegia, Mahaiaren osaketa eta ordutegia proposatzea Euskadiko Asanblada Nagusiari.
- e) Euskadi mailako edo izaera federaleko Batzar, Bilera eta asanbladetarako arauak, dokumentuak eta abar egitea eta onartzea, EZKER ANITZA – IUren eskumenari dagokionean.
- f) EZKER ANITZA – IUren politika lana zuzentzea eta sustatzea.
- g) Euskadiko KOLEGIATUA aukeratzea eta egon litezkeen hutsuneak betetzea.
- h) EZKER ANITZA - IUren ibilbide politikoa aztertzea eta ebaluatzea eta aipatua handitu eta garatuko duten politika eta erakunde akordioak hartzea, Euskadiko Asanblada Orokorrak onarturiko ildo orokorrekin bat. EZKER ANITZA – IU.
- i) Bere eskumeneko eremuko kargu publikoen erakunde jarduera ebaluatzea, zuzentzea eta sustatzea, EZKER ANITZA - IUko ikuspegi orokorretik, Legebiltzar Taldearen lana jarraitzea, bai eta Eusko Jaurlaritzan ditugun ordezkariak ere, horrelakorik balego.
- j)) Garrantzi bereziko gaiak bozkatzera deitzea, egokia deritzon moduan eta aurretik azaldutako izaerarekin, loteslea ala ez, bere eskumeneko eremuaren eta lurraldearen baitan.
- k) Erkidegoko Hauteskunde Programa onartzea, Programa Konbentzioa horretarako deitua izan denean.
- l) Lurralde bakoitzeko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde zerrendak onartzea eta Lehendakariagaia aukeratzea beren buruen artean.
- m) Eusko Legebiltzar Talderako irizpide politiko nagusiak eta osaketa zehaztea.
- n) Lurralde Bakoitzeko Ahalduen Nagusi izateko hautagaia berrestea.
- o) Hiru lurraldetako batzar nagusietarako hauteskundetarako barruti bakoitzeko zerrendak berrestea.
- p) Kongresu eta senaturako zerrenda osoak onartzea.
- q) Europako Hauteskundetarako hautagaiak proposatzea Izquierda Unidako Politika eta Gizarte Asanbladari.
- r) Izquierda Unidako Politika eta Gizarte Asanbladan izango dituen ordezkariak aukeratzea.
- s) Erakunde osoaren eta bere organoen funtzionamendua bermatzea, bai eta beharrezko bitarteko guztiak eskaintzea EZKER ANITZA - IUren garapena bermatzeko ingurune apalenetan.
- t) Beste organo baten eskumen eskusiboa ez diren beste eginkizun guztiak.
- u) Estatutu hauetako beste artikulua batzuetan zehaztutako beste guztiak.
- v) Euskadiko Koordinakundeak behar adina eginkizun utz ditzake maila xumeagoko organoren baten esku.

- w) EZKER ANITZA - IUren ikurrean egindako aldaketak onartzea. Horretarako, Kontseiluaren 2/3en babesa izan beharko da.
- x) EZKER ANITZA – IUko ordezkari botere gorenak ematea edo kentzea Koordinatzaile Nagusiari.
- y) Kontu mankomunatuak irekitzeko boterea Koordinatzaile Nagusiari eta Antolaketa Idazkariari ematea edo kentzea. Bi sinadura beharko dira edozein transakzio ekonomiko egiteko.

52. Artikulua: Koordinatzaile Nagusia

Ondokoak dira bere eginkizunak:

- a) EUSKADIKO KOORDINAKUNDEA DEITZEA eta bere bileren buru izatea.
- b) Euskadiko KOLEGIATUA deitzea eta bere bileren buru izatea.
- c) EZKER ANITZA – IU Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkatzeko.
- d) Euskadiko Koordinakundeak edo Euskadiko KOLEGIATUAK berariaz esleitzen dizkioten guztiak.
- e) Estatutu hauetako beste artikuluko batzuetan zehaztutako beste guztiak.
- f) Koordinatzaile Nagusiak bere kudeaketa azalduko dio, erregulariki, KOLEGIATUARI; eta Euskadiko Koordinakundeari organo honek horrela eskatzen dionean.

53. Artikulua: Euskadiko Kolegiatua

- a) Euskadiko KOLEGIATUAK erakundearen politika zuzendaritza iraunkorra bermatuko du Euskadiko Koordinakundearen bileren artean.
- b) Ondoko kideak ditu:
 - Koordinatzaile Nagusia.
 - Euskadiko Koordinakundeak aukeratutako kideak; hauek, bere Kontseiluko kide izan beharko dute. Lurralde Koordinatzaileak, KOLEGIATUko kideak ez badira, bileretara bertaratuko dira, ahotsarekin baina botorik gabe.
- c) KOLEGIATUAK, aztertu beharreko gaien arabera eta inoiz ez era iraunkorrean, Kontseilu Politikoko kideak ez diren pertsonak gonbidatzeko aukera izango du. Hauek, ahotsa izango dute, baina botorik ez.
- d) Ohiko bilera bi astean behin egingo ditu eta ezohikoak, Koordinatzaile Nagusiak deituta edo bere kideen bi herenak eskatuta.
- e) KOLEGIATUrako kideak erabakitzerakoan sexuen arteko berdintasuna aintzat hartuko da.

54. Artikulua: Euskadiko Kolegiatuaren funtzioak

- a) Euskadiko Koordinakundea deitzea.
- b) Kontseilurako gai-zerrendak prestatzea, bai eta dagozkion dokumentazioa eta proposamenak ere.
- c) Euskadiko Koordinakundearen akordioak gauzatzea, beren koordinazio aproposa bermatuz.
- d) Politika eta erakunde erabakiak hartzea, Euskadiko Koordinakundeak ezarritako ildo orokorrekin batera. Erabaki garrantzitsuenak, eta garrantzi berezia duten horiek, organo horren hurrengo bileran azaldu beharko ditu.

- e) EZKER ANITZA – IUko politika zuzentzea eta beharrezko ebazpen guztiak onartzea. Hauek, EZKER ANITZA – IU osorako lotesleak izango dira eta Euskadiko Koordinakundeak ezarritako ildo orokorrekin bat joan beharko dute.
- f) Administrazio lan, eginkizun politikoak, instituzionalak eta antolaketa mailakoak egingo dituzten soldatapeko langileen kopurua eta baldintzak zehaztea, bai eta postu horiek beteko dituzten pertsonak izendatzea ere.
- g) Euskadiko Koordinakundeak berariaz esleitzen dizkion beste guztiak. Euskadiko Koordinakundeak ezingo du KOLEGIATUAREN esku utzi, inolaz ere, hauteskunde aliantzak eta gobernu akordioak onartzeko gaitasuna.
- h) Estatutu hauetako beste artikulua batzuetan zehaztutako beste guztiak.
- i) EZKER ANITZA – IUREN aurrekontuak onartzea.

VII. IZENBURUA: ERAKUNDE TALDEEN INGURUKOA

55. Artikulua: Legebiltzar, Batzar Nagusi eta Udal taldeen eta Ezker Anitza-IUK Gorte Nagusitan, Senatuan eta Europako Parlamentuan dituen ordezkarien ingurukoa

- a) Euskadiko KOLEGIATUko Erakunde Politikako Arduradunak harreman iraunkorra bermatu beharko du Erakunde Taldeen eta EZKER ANITZA – IUko Zuzendaritzaren artean. Bileretan egoteko aukera izango da.
- b) Erakunde Taldeen autonomiari kalte egin gabe, hautetsi ez diren karguak EZKER ANITZA - IUko KOLEGIATUak izendatu eta onartuko ditu.
- c) Erakunderen baterako EZKER ANITZA – IUREN zerrenden barruan aukeratutako kargu publiko guztiek EZKER ANITZA – IUko Erakunde Taldea osatu beharko dute. Legebiltzar Taldeak, Batzar Nagusietako Taldeak eta Udal Taldeak beren barne funtzionamendurako Arautegiak onartuko dituzte. Hauek, Euskadiko Koordinakundeak onartuko ditu azkenik, Euskadiko KOLEGIATUAREN iritzia entzunda eta dagokion Erakunde Taldearen proposamena jaso ostean.
- d) EZKER ANITZA – IUK Diputatuen Kongresuan, Senatuan eta Europako Parlamentuan dituen biltzarkideak beren taldetako Arautegiaren mende egongo dira.
- e) EZKER ANITZA – IUko organoek Erakunde Taldeetako jarduera baldintzatuko duten xede politiko nagusiak definituko dituzte.
- f) Erakunde Taldeetako kideak beren bozeramailea eta koordinatzailea aukeratuko dituzte. Beren eremuko Koordinakundeak izendapen horiek berretsi beharko ditu, Erakunde Taldea osatu eta hurrengo bere bileran; baita legealdian zehar egindako izendapen berriak ere.
- g) Ordezkarien, kargu publikoen eta erakunde eremuan kontratatutako langileen lanaren politika kontrolak eta ibilerak ezingo du, inolaz ere, gure programaren garapenak izan behar duen lehentasun bakarria baldintzatu: funtzio publikoa eta hiritarrei arreta eskaintzea.
- h)

56. Artikulua: Kargu publiko eta erakunde taldetako erregimen ekonomikoa

- a) Kutxa komunaren sistema erabiliko da aipatua gauzatzeko.
- b) EZKER ANITZA – IUko dagokion organoak ahalegin guztiak egingo ditu, erakundearen ahalmenen baitan, afiliatuek ez diezaieten kargu publikoaren eginkizunei uko egin diru arrazoiengatik. Autofinantzazioa bilatuko da kuota eta ezohiko bitartekoen bidez; honela, erakunde publiko edo finantza erakundeengandik jasotako baliabideen mende egotea saihestuko dugu.
- c) Kargu publikoen erregimen ekonomikoa EZKER ANITZA – IUko organo eskudunaren akordioen mende geratuko da, interesatuari entzun eta gero. Nolanahi ere, ez da ordainsari eskusiborik emango kargu publiko bat izate hutsagatik.
- d) EZKER ANITZA – IUko Erakunde Taldeek edo ordezkariak izaera publikoko edo mistoko enpresa eta elkartetan jasotzen dituzten diru-laguntza, ordain eta bestelako diru-sarrera guztiak EZKER ANITZA - IUko organo eskudunek administratuko dituzte.
- e) Kabinete Teknikoak Euskadiko organo politikoaren mende egongo dira. Azken horiek dira antolaketa koordinatzailearen bidez egin beharreko eginkizunak eta hauek non gauzatu diren uneoro erabakiko dutenak.
- f) Kargu publiko izan ez baina izaera politiko, tekniko edo administratiboko ordaindutako lanen (lanaldi oso edo partzialean) bat egiten dutenen onarpena organo politiko eskudunak erabakiko du. Langile tekniko edo administratiboak hautaketa prozesu objektibo baten bidez aukeratuko dira, prestakuntza baldintzak eta eskatutako merituak agertzen dituzten afiliatu guztiei irekia.
- g) Erakunde Taldeek eta kargu publikoek ezingo dute laguntzailerik izendatu edo aukeratu, bere kostu ekonomikoa EZKER ANITZA- IUren gainean eroriko ez balitz ere; EZKER ANITZA – IUko organo politiko eskuduna izango da azken erabakia hartuko duena.
- h) Erakunde Taldeetan izaera politiko, tekniko edo administratiboko eginkizunak betetzen dituzten pertsonen lanak kargu publikoei eska dakiekeen leialtasun kodea bete beharko du ere. Aipatu pertsonak, Erakunde Taldeek edo EZKER ANITZA – IUko Zuzendaritzak erreserbatutzat jotzen dituzten eztabaida guztiak isilpean gorde beharko dituzte. Betebehar horiek ez betetzeak EZKER ANITZA – IUk arautegi ezberdinetan ezarri dituen zehapenen aplikazioa ekar lezake. Halaber, izaera politikoko eginkizunak betetzen dituztenek kargu publikoek bete behar duten ekonomia kontrol edo informaziorako betebeharra bete beharko dute ere.

IX. IZENBURUA: EZKER ANITZA-IUKO ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

57. Artikulua: Printzipioak

- a) EZKER ANITZA – IUren politika eta erakunde mailako garapen eta sendotzeak bere baliabide ekonomikoen kudeaketa gardena, estua, eraginkorra eta solidarioa eskatzen du; honek, nolana ere, indarreko legediak dioena bete beharko du.
- b) EZKER ANITZA – IUk bere aurrekontuen % 0,7a bideratuko du, gutxienez, Elkartasun Programa ezberdinera, eta % 1era iristen saiatuko da ere, gardentasun eta argitasun osoz, kopuru guzti horren zati bat gizarte-egoera ahuleko taldeei zuzendua egongo dela bermatuz; azkenik, EZKER ANITZA -IUKo xede politikoekin bat doazen proiektuak lehenetsi beharko dira.
- c) Urtero, afiliatu guztiek aurreko ekitaldiko gastu-likidazioaren laburpen zehatza jasoko dute, bai eta ekitaldi horretarako onartutako aurrekontua ere; bidalketa posta elektronikoz egingo da, dirua aurrezteko.

58. Artikulua: Ezker Anitza-IUren finantza bitartekoak

- Ohikoak: Erakundetako eta EZKER ANITZA – IUKo kargu publikoetako diru-laguntza publikoak, EZKER ANITZA – IUKo afiliatuen kuotak.
- Ezohikoak: Dohaintzak, zozketak, laguntza eta kanpaina bereziak, jaiak, indarreko legediak dioenarekin bat.

59. Artikulua: Kotizazioa

- a) Kuota nominala eta pertsonala izango da eta banku-helbideratzearen bidez ordainduko da, ADUren arauen arabera.
- b) Gutxieneko hileko kuota 5 eurokoa izango da.
- c) Lanbide arteko gutxieneko soldataren ordainsari baliokidea edo txikiagoa jasotzen dutenek salbuetsita egongo dira eta hileko 3 euroko kuota ordaintzeko aukera izango dute.
- d) Kuota ordaintzea beharrezkoa da afiliazioaren ondoriozko eskubide guztiez gozatu ahal izateko.
- e) Euskadiko Koordinakundeak kuotak urtero eguneratzeko aukera izango du eta kuota berezia ordainduko dutenek bete beharko dituzten baldintzak ezarriko ditu.

60. Artikulua: Administrazioa

- a) Indarreko legediarekin bat, eta beharrezko administrazio eta kontabilitate eraginkortasuna bermatze aldera, EZKER ANITZA – IUKo baliabideek unitate administratibo bakarra osatzen dute. Horretarako, kontabilitate plangintza bakarra ezarriko da EZKER ANITZA – IU erakunde osorako, dagozkion kontabilitate liburuak erraztuz ere. EZKER ANITZA – IU.
- b) Euskadiko Koordinakundeak, eta KOLEGIATUAK bere izenean, EZKER ANITZA - IUKo finantza baliabide guztiak administratuko ditu, Euskadiko

Asanblada Nagusiak erabakitakoari eta Euskadiko Koordinakundeak Urteko Plangintzan zuzenean onartutakoari jarraiki.

61. Artikulua: Bitartekoen kudeaketa

EZKER ANITZA – IUren ohiko bitartekoen banaketa Euskadiko KOLEGIATUAren eskumena da, ondoko lehentasunen arabera:

1. EZKER ANITZA – IUko egituraren eta bere organoen funtzionamendua bermatuko da: Koordinakundea, KOLEGIATUA, Arloak, Asanbladak, etab., dagozkion ordainsariak ordainduko dira eta Oinarrizko Asanbladek eta Arloek sorturiko gutxieneko ohiko gastuak bermatuko dira ere.
2. Bere barruko alderdi eta taldeen funtzionamendua bermatzeko, EZKER ANITZA - IUK beren jarduerak eta beharrak finantzatuko ditu, beti ere irizpide objektiboak aplikatuz.

Hauteskunde Kanpainak:

1. Hauteskunde Kanpainen finantza kudeaketa zentralizatu egongo da, bitarteko ekonomiko guztiak batuz.
2. Gastuaren kudeaketa zentralizatuak eraginkortasunak eta errentagarritasunak gomendatzen dituzten ataza horien beharrezko homogeneotasuna eta zentralizazioa bermatuko du.
3. Hauteskunde prozesuen amortizazioa hauteskunde gastuei loturiko diru-laguntzen bidez egingo da.
4. Hauteskunde kanpainetarako aurrekontua eta bere banaketa Euskadiko Koordinakundeak onartu beharko du.

62. Artikulua: Antolaketa eta finantza batzordea

Antolaketa eta Finantza Batzordea Euskadi mailan eta hiru lurraldetan antolaketari eta finantzei dagokienean ardura duten pertsoez osatuta egongo da. Ondokoak dira bere eskumenak: finantza eta ekonomia kontrolerako proposamen egokiak egitea, aurrekontu desbideratzeak zuzentzea eta kudeaketa hobetzea gardentasun, zorroztasun eta elkartasunean oinarrituta.

63. Artikulua: Kontuak ikuskatzeko batzordea

3 kide izango dituen organo iraunkor bat izango da. Hauek, ezingo dute kargu publikorik izan, ez eta EZKER ANITZA – IUko langileak izan ere.

Ondokoa da bere xedea:

- a) Erakundearen diru-sarrera eta gastuak urtero ikuskatzea.
- b) Finantza egoeraren inguruko urteko txosten bat egitea. Txostena Euskadiko Koordinakundearen aurrean aurkeztu beharko du.
- c) Finantzak berresteko edo zentsuratzeko dokumentu bat egitea eta Euskadiko Asanblada Nagusi bakoitzean aurkeztea.

X. IZENBURUA: ZEHAPEN PROZEDURAREN ETA GATAZKEN EBAZPENAREN INGURUKOA

1. Kapituluak: Zehapen prozeduraren ingurukoa

64. Artikulua: Izaera eta eremua

Zuzendaritza politikoko organoek Estatutuak urratu dituzten afiliatuen jarrera pertsonalak zehatzeko gaitasuna dute.

Ondokoa da organo bakoitzaren zehapen gaitasuna:

- a) Oinarrizko Kolegiatuak bere asanbladara atxikitako afiliatuen eta Zinegotzien jarrera indibidualak zigor ditzake.
- b) Lurralde Kolegiatuak Tokiko Kolegiatuetako kideen, Lurraldeko Kolegiatuko kideen, Batzarkideen, zinegotzien eta bere organoko edo beherakoetako kide diren afiliatuen jarrera indibidualak zigor ditzake.
- c) Euskadiko Koordinakundeak: Lurralde Kolegiatuko kideen, Kolegiatuko kideen eta Legebiltzarkideen Batzarkideen edo bere organoko edo beherakoetako kide diren afiliatuen jarrera indibidualak zigor ditzake. IUko Politika eta Gizarte Asanbladako edo Kolegiatu Federaleko kide diren afiliatuak zigor ditzake ere.

Aurrean esandakoari kalte egin gabe, zigorra jartzen duen organoak kautelazko neurriren bat jartzeko beharra ikusiko balu, Bermeen Batzordearen aurrean azalduko du eta azken hau izango da erabakia hartuko duena.

65. Artikulua: Arau hausteak

1. Arau hausteak honela sailkatzen dira:
 - Arinak
 - Larriak
 - Oso larriak
2. Ondokoak dira arau hauste arinak:
 - EZKER ANITZA – IUko organoei edo bere afiliatuei errespeturik ez izatea jarduera politikoa gauzatzerakoan, jarrera horrek eragin publikorik ez duenean.
 - Estatutuetan zehaztutako betebeharren betetzean zabarra izatea.
3. Ondokoak dira arau hauste larriak:
 - Aurreko atalean zehaztutakoak, oihartzun publikoa dutenean edo erakundearen baitan edo erakunde publikoetan arduraren bat duen pertsona batek egiten dituen.
 - Bi urteko epearen barruan hauste arinak behin eta berriz errepikatzea, eskumeneko organoen aldetiko abisua egin bada.
 - EZKER ANITZA - IUko organoen lana eta erabakiak oztopatzea.
 - EZKER ANITZA – IUko organoek beren eskumenen gauzatzearen baitan hartu dituzten erabaki, akordio edo ebazpenen kontrako iritziak, ideiak edo iruzkinak publiko egitea edozein komunikabideren aurrean.

- Afiliatu bat pertsonalki iraintzea, bere irudia edo ospea edo bere partaidetza hartzen duten kolegiatutako organoetako irudia edo ospea kolokan geratzen denean.
4. Ondokoak dira arau hauste oso larriak:
- Hauste larriak behin eta berriz errepikatzea, aurreko atalean idatzitakoarekin bat.
 - EZKER ANITZA – IUko zerrendetan aukeratutako karguren baten aurkako mozio-zentsura bat egitea edo babestea beste alderdi edo koalizio batekin, edo norberaren ekimenez. Hauteskunde prozesu berberean aurkeztutako beste alderdi politikoren baten hautagaitzak babestea.
 - Erakundea, bere kargu politiko, organo edo kargu publikoak larriki narriatzea edo kaltetzea.
 - Erakundeko organoek beren eskumenen gauzatzean berariaz onartu dituzten akordio, erabaki edo ebazpenen kontra egitea. Afiliatuen erroldak aldatzea edo aizuntzea.
 - Afiliaturen bati fisikoki eraso egitea.

66. Kapitulua: Zehapen prozedura

Prozedura alde batek eskatuta edo ofizioz hasiko du organo politiko eskudunak. Espedienteari hasiera emateko, dagokion organo politikoak instruktore bat aukeratuko du bere kideen artean. Honek, egokiak deritzon proba guztiak egingo ditu. Horien artean, alegazio-idatzi bat eskatu beharko dio alde bakoitzari, halabeharrez. Probak amaituta eta 30 egun naturaleko gehienezko epean edo instruktorea izendatu osteko organoaren lehen bileran, ebazpen bat proposatuko dio organo horri. Honek, bozketa egingo du eta instruktoreak ez du aipatu bozketan parte hartuko.

Bi aldeek ebazpena jasoko dute, ahalik eta epe motzenez.

Bi aldeek ebazpenaren aurkako helegitea aurkezteko aukera dute, EZKER ANITZA – IUko Arbitraje eta Demokrazia Bermeen Batzordearen aurrean. Horretarako, 10 egun natural izango dituzte, gehienez, ebazpena jasotzen dutenetik.

Helegite bat jartzeak zehapenaren kautelazko etetea ekarriko du, automatikoki, helegiteari buruzko behin betiko ebazpena izan arte. Arau hauste oso larrien kasuan, ordea, ez da arestikoa aplikatuko, beren kasuan 66. artikuluan zehazturiko kautelazko neurriak aplikatuko baitira.

67. Artikulua: Kautelazko neurriak

Espedientean jorratutako gertaerak arau hauste oso larritzat hartuak izango balira, eta EZKER ANITZA – IUren iritsi oihartzun publiko nabaria dutelakoan gainera, afiliatu gisa pertsonak dituen eskubideak behin-behinean eten daitezke.

Kautelazko neurriak arrazoi nahikoarekin justifikatuta egon beharko dute eta eskumeneko organoaren bilerara bertaratutako 2/3n babesa izan beharko dute.

Kautelazko neurriak ezarri eta bi hilabetera dagokion zehapen espediente amaitu gabe balego oraindik, kautelazko neurriak indarrean egoteari utziko diote.

68. Artikulua: Zehapenak

Ondokoak izan daitezke:

Arau hauste arinen kasuan: Ohartarazpena, barnekoa eta/edo publikoa.

- Arau hauste larrien kasuan: Afiliazio eskubideak (guztiak edo zati bat) hilabete bat eta sei hilabete bitartean etetea.
- Arau hauste oso larrien kasuan: Afiliazio eskubideak etetea, urte bat edo bi urteko epean. Kanporatzea, ezohiko neurri gisa, hausteak behin eta berriz errepikatzen dutenen edo larritasun bereziko hausteen kasuan; horien artean daude Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera afiliazioa galtzea dakarten arau hausteak ere.
- Arau hauste arinak bi hilabetera preskribatzen dira; hiru hilabetera larriak eta 6 hilabetera oso larriak. Preskribatze epea arau haustea hartu duen egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Arau haustea ezkutatua izan den kasuetan, epea arau haustea deskubritzen egunetik hasiko da zenbatzen.
- Espediente zigortzailearen hasiera jakinarazteko komunikazioak preskripzio epeak eteko ditu.

2. Kapitulua: Gatazken ebazpena

69. Artikulua: Ezker Anitza-IUko arbitraje eta demokrazia bermeen batzordea

- a) Asanblada Nagusia aukeratutako hiru kidez osatua egongo da. Hauek ez dute inolako kargu publikorik edukiko, ez dira erakundearen langileak izango eta independentzia eta inpartzialtasunez arituko dira. Dimisioren bat egon edo bateraezintasun egoera bat sortuko balitz, Batzordean sorturiko hutsuneak Euskadiko Koordinakundeak beteko ditu, aukeraketan erabilitako irizpideak aplikatuz.
- b) EZKER ANITZA – IUko Arbitraje eta Demokrazia Bermeen Batzordeak organo eskudunek hartutako erabakien aurrean aurkezturiko helegiteak aztertuko ditu.
- c) EZKER ANITZA – IUko Antolaketa Idazkaritzak Batzordearen lan egokia bermatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu.
- d) Batzordeak, izendatua izan eta hurrengo bileran, Koordinatzaile bat eta Akten Idazkari bat aukeratuko ditu bere kideen artean. Bigarren bileran, presidenteak Funtzionamendu Arauak aurkeztuko ditu; hauek, gehiengo soilaz onartuko dira.
- e) Bere bilerak balekoak izan daitezzen, kide erdien gehi bateko quoruma izan beharko da bilera guztian zehar.
- f) Edozein arrazoiengatik, ADBBra bertaratuak erdia baino gutxiago balira eta ordezkorik ez balego beharrezko ordezkapenak egin ahal izateko, EUSKADIKO KOORDINAKUNDEAK batzordearen funtzioa bermatzeko beharrezkoak diren izendapenak onartuko ditu, bere kideen 3/5eko gehiengoz.
- g) Zuzendaritza organoek ez dute ADBBko kideak kargutik kentzeko gaitasunik. ADBBko kide izateari uzteko arrazoiak ondokoak dira: heriotza,

erakundetik baja ematea, dimisioa edo batzordearen hiru bilerara ez joatea inolako justifikaziorik gabe.

70. Artikulua: Prozedura

- a) Jasotako gaiak aztertzeko, instruktore bat izendatuko da zozketa bidez, aztertu beharreko gaien banaketa orekatua mantenduz.
- b) Gaia aztertzeko aukeratutako pertsonak helegitea sortu duen espediente osoa eskatuko dio aipatua egin duen organoari. Organo horrek 15 laneguneko gehieneko epea izango du aipatu txostena bidaltzeko.
- c) Espedientea jaso eta gero, instruktoreak 15 egun naturaleko epea izango du EZKER ANITZA - IUko ADBBk helegitea aztertzeko eskumena duen ala ez zehaztuko duen txosten bat egiteko. Eskuduna ez dela ulertuz gero, nahi adina alegazio aurkezteko 15 eguneko epea duela jakinaraziko zaio helegitea jarri duen pertsonari. Alegazioak aztertuta, Batzordearen Batzarrak bere eskumenaren inguruan erabakiko du.
- d) Txostena aurkeztuta eta eskumena aitortuta, instruktoreak beharrezko izapide guztiak egingo ditu gertatutakoa ikertzeko. Horren aurretik, bi aldeekin batzartuko da eta hauek egiaztatze-jarduketak egitea proposa dezakete. Aldeekin batzartu baino lehen, bi aldeek bidalitako txostenaren edukia ezagutzeko aukera izango dute.
- e) Eskaera jasotzen dutenetik, bi aldeek 15 egun naturaleko epea izango dute beren alegazioak aurkezteko.
- f) Eskumena egiaztatzen denetik, instruktoreak 2 hileko epea izango du Batzordearen aurrean ebazpen-proposamen bat aurkezteko. Aipatu proposamenak gertatutakoa, egindako probak eta helegitearen onarpena edo errefusatzea jasoko ditu.
- g) Presidenteak Batzordea deitu beharko du, bilera egin dadin ebazpen-proposamena jaso eta hilabeteko epearen barruan. Bileran helegitearen onarpena edo errefusatzea bozkatuko da, gehiengo soilaz. Espedientearen instruktoreak ez du bozketan parte hartuko.
- h) Ebazpenak arrazoituta egin beharko dute beti.
- i) Ebazpena erabakita, ebazpena berehala jakinaraziko zaie bi aldeei.
- j) Euskadiko Arbitraje eta Demokrazia Bermeen Batzordearen erabakien aurkako helegiteak Arbitraje eta Demokrazia Bermeen Batzorde Federalaren aurrean aurkez daitezke.

XI. IZENBURUA: ESTATUTUEN ALDAKETAREN ETA INTERPRETAZIOAREN INGURUKOA

71. Artikulua: Estatutuen aldaketa

- a) Asanbladen artean EZKER ANITZA – IUren Estatutuak aldatzeko prozesua, Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko Koordinakundearen eskumena da. Horretarako, Euskadiko Koordinakundeko botoen % 70aren babesa lortu beharko da.

- b) Estatutuak aldatzeko proposamena egiteko aukera dute, bakar-bakarrik, Euskadiko KOLEGIATUA edo Euskadiko Koordinakundea bera.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena

Bere Finantza Karta Euskadiko Koordinakundearen lehen bileran egingo du EZKER ANITZA – IUk.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena

Estatutu hauen kanpo geratutako guztiari dagokionean, Euskadiko Koordinakundea da gai horren inguruan erabakitzeke gaitasuna duen organoa.

Bigarrena

Ezker Anitza – IUk bere egiten du Izquierda Unida Federaleko Kode Etikoa.

Hirugarrena

Ezker Anitza - IUk IU Federaleko ADUren Arautegia bere egiten du.

Laugarrena

Estatutu hauek aipatuak onartu dituen Asanblada amaitu bezain laster sartuko dira indarrean.



**EUSKADI
BERRIAERAIKIZ**